

AURKIBIDEA
INDICE

2

SARRERA.....	1
<i>INTRODUCCION</i>	
XXI. MENDEKO EAE-KO EKONOMIA.....	4
<i>LA ECONOMIA VASCA DEL SIGLO XXI</i>	
EAEko ekonomia XXI. mendearen hasieran. Zalantza betetako etorkizunari aurre egiteko ahalmenak.....	5
<i>La economía vasca al empezar el siglo XXI. Potencialidades para afrontar un futuro incierto</i>	
Alegiazko eurotik eragiketa guztietarako eurora.....	8
<i>Del euro virtual al pleno funcionamiento del euro</i>	
EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA.....	10
<i>CONTEXTO DE LA ECONOMIA VASCA</i>	
EAE-KO EKONOMIA 2001. URTEKO LEHEN HILABETEETAN. LABURPENA ETA ARLOEN PORTAERA.....	19
<i>LA ECONOMIA VASCA EN LOS PRIMEROS MESES DEL AÑO 2001. SINTESIS Y COMPORTAMIENTO SECTORIAL</i>	
EAEko ekonomia 2001. urtean. Analiaren laburpena.....	20
<i>La economía vasca en el año 2001. Reflexión de síntesis</i>	
Ekoizpen arloak.....	23
<i>Sectores productivos</i>	
ESKARIA.....	26
<i>DEMANDA</i>	
LAN MERKATUA.....	39
<i>MERCADO DE TRABAJO</i>	
PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK.....	45
<i>PRECIOS, COSTES Y SALARIOS</i>	
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIAREN AURREIKUSPENA: 2001-2005.....	51
<i>EL ESCENARIO MACROECONOMICO PARA EL PAIS VASCO: 2001-2005</i>	
Nazioarteko aurreikuspenen ezaugarriak.....	52
<i>Escenario de perspectivas internacionales</i>	
Aipatutako testuinguruak EAEko ekonomian izango dituen ondorioak.....	55
<i>Efectos sobre la economía vasca derivados del contexto señalado</i>	
Ekonomiaren aurreikuspenak.....	56
<i>Escenario macroeconómico</i>	

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

SARRERA

INTRODUCCION

Ekonomi eta finantza txosten honen asmoa 2002. urterako EAEko Aurrekontu Orokorrek osatzeko orduan dagoen abagune ekonomikoa azaltzea eta ekitaldi horretan ekonomiak izan ditzakeen portaera aurreratzea da. Horretarako, nazioarteko testuinguruan espero daitekeen bilakaera eta berak EAEko ekonomian izan dezakeen eragina hartu dira kontuan.

El presente informe económico y financiero pretende describir el momento económico existente a la hora de elaborar los Presupuestos Generales de la CAPV para el año 2002 y adelantar los escenarios de comportamiento económico más factibles en ese ejercicio, que pueden deducirse a tenor de la evolución esperada en el contexto internacional y su influencia sobre la economía vasca.

2002. urteko aurrekontuetan dauden jarduerak, ekonomia eta finantza alorrean zer egoeratan garatuko diren aztertzeko orduan, kontuan hartu beharko dira ondoko lau alderdi hauek, garrantzitsuenak direlako:

A la hora de valorar la situación económica y financiera en la que van a desarrollarse las actuaciones contenidas en los presupuestos del año 2002, se deben tener en cuenta los siguientes cuatro aspectos más significativos:

- Adituek, nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenei buruz uda baino lehenago argitaratu zituzten txostenetan, munduko ekonomia 2001. urteko bigarren erdian suspertuko zelako aurreikuspenak gaur egun betetzeko dauden aukerak.
- EAEko ekonomiak igaro diren 2001. urteko hilabeteetan izan duen bilakaera bera eta ekitaldiaren gainontzeko hilabeteetan eta 2002. urte osoan izan ditzakeen joera antzekoak edo ezberdinak.
- Irailaren 11n jazo ziren ustekabeko gertakarien ondoren munduan sortu den egoera politiko militar eta sozial berria, ekonomiaren bilakaeran zalantza handiak piztu baititu. Izan ditzakeen eraginaren norabidea oso zabala da: igurikapenak okerragotu, salgaien libre zirkulazioari oztopoak jarri edo atzerapenak eragin, eta, beste alor batean, helburu jakin batzuetarako bideratu den gastu publikoaren zenbatekoak aldatu. Denboraren joanak argitu beharko ditu zalantza guzti horiek.
- EAEko ekonomiak aurrean dituen erronkei, hala nola nazioarteko egoeraren aldaketari, erantzuteko duen ahalmena eta Ekonomi eta Moneta Batasunaren hurrengo faseari, hots, euroaren sarrera fisikoari, ekiteko gaitasuna, zeinetan herritar guztiek parte hartu beharko baitute.
- Las posibilidades de cumplimiento de las previsiones de recuperación de la economía mundial en la segunda mitad del año 2001, que se anticipaban en los informes de los expertos sobre las previsiones de la economía internacional difundidos antes del verano.
- La propia dinámica de evolución de la economía vasca en los meses transcurridos de 2001 y las tendencias similares o diferenciales abiertas para el resto del ejercicio y para todo el 2002.
- La variación de la situación política, militar y social internacional surgida a partir de los inesperados acontecimientos del 11 de septiembre, que plantean serias interrogantes en la evolución económica. El abanico de impactos posibles es amplio: desde empeoramiento de las expectativas, impedimentos o ralentización a la circulación de mercancías, hasta variaciones en el montante del gasto público dedicados a determinados fines. Solo el discurrir de los acontecimientos podrá despejar dichas dudas.
- La disposición de la economía vasca para responder a los retos abiertos, en materia de variación del escenario internacional, así como para acabar de enfrentar las exigencias de la siguiente fase de la UEM: la introducción total del euro, en el que estarán ya implicados todos sus ciudadanos.

Hala eta guztiz ere, aurrean geratzen den etapa aldaketa edo berrikuste etapa gisa izenda daiteke, ekonomiaren egoerari dagokionez, bai lehenago espero zen ziklo ibilbidea aldatu delako, bai aipatutako gertakari ezohikoek eragin kateatuak sortuko dituztelako, 2001. urteko azken hilabeteetan ondorengo emaitzak baldintzatu baitituzkete.

Con todo, la etapa que queda por delante puede calificarse como una etapa de cambio o revisión del panorama económico, tanto por la variación de la trayectoria del ciclo anteriormente esperado, como por los efectos encadenados de los hechos excepcionales, que pueden forzar durante los meses finales del año 2001 los resultados posteriores.

Alderdi batean, gutxienez, ez dago zalantzarik eta adostasuna oso zabala da: munduko ekonomia ez da bigarren seihilekoan suspertuko. Susperraldia 2002. urtera atzera daiteke eta orduan ere goranzko bidea hartzen badu, mugimenduaren bizkortasuna ez da hasieran uste zena bezain bizia izango.

Prozesu hori guztia zehatzago adierazteko, txostena hiru ataletan banatu da. Lehenengoan, XXI. mende hasieran ekonomi aldagaietan lortu diren hobekuntzen azalpen laburra ematen da; bigarren atalean, 2001. urteari buruz eskura dagoen informazioa -bereziki lehen seihilekoaren bilakaera aztertu da- zehatz-mehatz bildu da; eta, azkenik, hirugarren atalean, EAEko ekonomiarentzat hurrengo urteetarako aurreikusi den oinarritzko bilakaera eta aurreikuspen horren baldintzatzaileen azalpena eskaini da.

Sobre lo que no surgen dudas y existe ya consenso es que la economía mundial no podrá mostrar una recuperación durante el segundo semestre, que puede posponerse hasta el 2002 y que, si la actividad económica empieza a describir una pendiente ya positiva, lo hará con un dinamismo mucho más moderado.

Para detallar todo este proceso, el informe se articula en tres bloques. El primero es una breve exposición de las mejoras en las variables económicas con las que encara el inicio del siglo XXI; un segundo apartado de descripción detallada de la información disponible respecto de 2001, que es básicamente un análisis de la evolución del primer semestre; y, por último, un tercer bloque con el escenario básico de comportamiento de la economía vasca en los próximos años con una descripción de los condicionantes de la predicción.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

XXI. MENDEKO EAE-KO EKONOMIA

LA ECONOMIA VASCA DEL SIGLO XXI

EAEko ekonomia XXI. mendeko hasieran. Zalantza betetako etorkizunari aurre egiteko ahalmenak


Mendeko azken hiru hamarkadetan, Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomi eraldaketa handiak gauzatu dira. Harremanak Europako gainontzeko ekonomietara irekitzea eta ekoizteko ehuna erreformatzeko eta malgutzeko beharra, lan eskaintza enplegatzeko eta herritarren ongizate hobea ziurtatzeko behar den aberastasuna sortzeko, izan dira eraldaketa horien arrazoi garrantzitsuenak.

La economía vasca al comenzar el siglo XXI. Potencialidades para afrontar un futuro incierto

En los tres últimos decenios del siglo, en el País Vasco se han materializado grandes transformaciones económicas, que han estado motivadas por el deseo de apertura en sus relaciones con las economías del entorno europeo y por la necesidad de reformar y flexibilizar su tejido productivo, para hacerlo capaz de emplear a su oferta de mano de obra y generar la riqueza precisa para asegurar la mejora del bienestar de sus ciudadanos.

1. irudi / Gráfico nº 1

EAEko ekonomiaren BPGren bilakaera azken 35 urteetan Evolución del PIB de la economía vasca en los últimos 35 años Tasas de crecimiento del PIB real



Hirurogeita hamarretan, ekonomiaren bilakaera hazkunde tasa altuetatik okertuz joan zen atzeraldian murgiltzera igaro arte. Laurogeietan, ordea, oso bestelako zikloa marraztu zuen, hasierako krisi larriko egoeratik amaierako hazkunde tasa esanguratsuetara. Azkenik, laurogeita hamarretan, hazkunde garrantzitsua izan da, gero eta handiagoa eta atzeraldi kezka garririk gabea. Horiek horrela, EAEko ekonomiak oso emaitza onak lortu ditu laurogeita hamarretako urteetan, bai hazkunde tasetan, bai enplegu sorreran, bai ingurune herrialdeekiko bat egite errealean, lehiatu nahi den Europako merkatu bakarrean.

Si la década de los setenta fue el periodo de deterioro paulatino desde altas cotas de crecimiento hasta la recesión, los ochenta dibujado un ciclo totalmente opuesto, desde una situación de grave crisis a tasas de crecimiento significativas, mientras que, en los noventa, el crecimiento ha sido importante, creciente y sin fases de desaceleración decisivas. De esa manera, la economía vasca durante los años noventa ha logrado unos resultados notables en términos de crecimiento, a la vez que en empleo y en convergencia real con los países de su entorno dentro del mercado único europeo en el que se plantea competir.

Zehazkiago adierazita, 1983. urtetik 1993. urtera bitartean, jardueraren bilakaerak ziklo indartsua osatu zuen, baina lan merkatuaren portaeran ez zuen horrenbesteko arrakastarik izan, zeren sortutako lanpostu garbiak (28.000) ez baitziren nahiko izan bertan parte hartu nahi zuten multzo handiarentzat (77.000 lagun gehiago, gazteak eta emakumeak, bereziki). Hori dela eta, langabezi tasa oso maila kezagarrian kokatu zen eta hazkunde handienetako urteetan ere ez zuen jaitziera nabarmenik lortu.

Halaber, ekonomiaren arlo jakin batzuetan bideratu ziren birmoldaketa garrantzitsuek ekoizpena eta enplegua egokitzera behartu zuten, eta krisi egoeretan, enpresak onbideratzeko, langileen kopurua gutxitzea izaten zen kostuak murrizteko berehalako neurria. Enpresen tamaina txikiagoa izateak malgutasuna areagotzea zekarren eta, beraz, merkatuen mugimenduetara hobeto egokitzea.

1994. urtetik aurrera, ekoizpen erritmo biziak lan esku handiagoa behar izan zuen eta, horren ondorioz, landunen kopuruak ordura arte ezezagunak ziren mailetara igo ziren. Aldi berean, parte hartzaile berrien hazkundera apaldu zen eta bi bilakaera horien ondorioz langabezi tasak behera egin zuten.

Prozesu horretan, protagonismo handia izan du industriaren egitura aldaketa, bere produktuak dibertsifikatu baititu, ekoizteko unitateen tamainak gutxitu eta, oro har, modernizatu, horretarako inbertsio handiak eginez, kanpo merkatuetara joateko helburuarekin. Nazioarteko egoera herrialdeen arteko merkataritza loturak areagotzeko giro batean murgildu da, alde askotariko akordioak sinatuz eta inportazioek xede herrian zituzten mota ezberdinetako eragozpenak kenduz. Aldi berean, Europako testuinguruan, moneta batasuna eratzen ari zen 11 herrialderen artean, euren politikak koordinatzeko, erabiltzen zuten dirua bakarra izateko eta zirkulazio askeko eremu ekonomiko eta sozial bat sortzeko.

Bitartean, EAEko ekonomiaren ahaleginak helburu horretarako ezarri ziren estandarretara egokitzera eta herrialde horrekiko salerosketak sendotzera zuzendu dira. Hori dela eta, epe horretan, emaitza arlo guztietan hazkunde tasa handiagoa lortu izana izan da, egindako lanak arrakasta izan zuela agerian utziz.

Aurrekoari lotuta, Europako politikaren barnean bategiteko bete behar diren helburuen artean, bi desoreka larri, hots, inflazioa eta defizit publikoa, kontrolatzeko neurriak hartu dira, bietan aurrerapen nabarmenak lortu direlarik.

Azaldutako guzti horretatik ondorioztatzen da EAEko ekonomia egoera onean sartu dela XXI. mendean. Bereziki azken urteetan arrakasta lortu da hainbat esparrutan eta horrek emaitza onak ekarri beharko lituzke oraindik koiuntura hurbilenean.

Más concretamente, desde 1983 a 1993 se completó un ciclo de evolución de la actividad de enorme intensidad, pero que no tuvo un reflejo tan positivo sobre el comportamiento del mercado de trabajo, ya que el empleo logrado (28.000) fue escaso para la masiva incorporación de nuevos activos (77.000 entre jóvenes del baby-boom y/o efectivos femeninos) y situó la tasa de paro en porcentajes muy preocupantes, sin apenas corrección en los ejercicios más dinámicos.

Además, las importantes reconversiones sectoriales pasaron por un redimensionamiento de la producción y del empleo y, en los procesos de crisis, para el saneamiento de las empresas se recurría al recorte de plantillas como método inmediato de aligerar costes. La reducción del tamaño de las empresas las dotó de flexibilidad para adaptarse mejor a los movimientos de los mercados.

A partir de 1994, el fuerte ritmo de producción permitió un mayor requerimiento de empleo, así ascendieron las cotas de ocupación hasta niveles sin precedentes, que, junto a una menor presión de los activos, se saldó con una bajada progresiva de la tasa de desempleo.


En dicho proceso ha tenido un gran protagonismo el cambio de la estructura industrial, que ha diversificado sus productos, ha reducido el tamaño de sus unidades productivas y se ha modernizado, realizando un enorme esfuerzo inversor con la mirada puesta en los mercados exteriores. El escenario internacional se ha movido dentro de una expansión generalizada de las relaciones comerciales internacionales, a través de los acuerdos multilaterales y la eliminación de barreras de distinto tipo a las importaciones, mientras en el contexto europeo se iba gestando una unión monetaria de 11 países que han acordado coordinar sus políticas, unificar su moneda y crear un espacio económico y social de libre circulación.

Entre tanto, la economía vasca ha dirigido sus esfuerzos a adaptarse a los estándares marcados para ese objetivo y a reforzar sus intercambios con esos países. Por ello, a lo largo de ese periodo, el fruto ha sido un porcentaje añadido de crecimiento en los distintos sectores, con lo que la tarea ha sido exitosa.

En ese orden de cosas, entre los objetivos emanados de obligada convergencia en el seno de la política europea, se han tomado medidas para controlar dos graves desequilibrios, la inflación y el déficit público, sobre los que se han alcanzado avances notorios.

De todo lo expuesto, se puede deducir que la economía vasca ha entrado en el siglo XXI en unas condiciones económicas favorables en las que, especialmente, los últimos ejercicios se han conseguido logros que deberían permitir resultados todavía muy positivos en la coyuntura más próxima.

2. irudi / Gráfico nº 2
BPGren eta langabeziaren bilakaera
Evolución comparada entre PIB y desempleo



Iturria: Eustat eta INE.
Fuente: Eustat e INE.

Hala ere, irailaren 11n gertatutakoaren ondoren, EAEko ekonomia murgilduko den ingurune ekonomian ziurgabetasuneko giroa da nagusi eta balizko hainbat eszenario planteatu dira. Mutur batean, eszenario baikorra aurkeztu da, zeinean gertakariak eragin txikia eta laburra izango bailituzkete ziurgabetasun politikoan. Beste muturrean, oso eszenario ezkorrak eta gertagaitzak daude, zeinetan igurikapenak zeharo erorita geratzen baitira eta ekonomia gelditu egiten da.

Behin berriro eta inoiz baino gehiago, kanpoko gertakariak erabakigarriak izango dira eta EAEko ekonomiak zaindu beharko ditu inguruko ekonomien arazoak, zeren, zalantzarik gabe, bereak ere izango baitira gero.

No obstante, tras los sucesos del 11 de septiembre, el entorno económico en el que se va a discurrir la economía vasca se caracteriza por el clima de inestabilidad, sobre el que se barajan un cumulo de escenarios alternativos, desde un escenario optimista de impacto reducido y de corta duración de la incertidumbre política, hasta escenarios muy pesimistas y más improbables de derrumbe total de expectativas y estancamiento económico.

De nuevo y más que nunca, los acontecimientos externos van a ser decisivos y la economía vasca deberá vigilar los problemas que las economías inmediatas presenten, ya que, sin duda, acabarán convirtiéndose en los suyos.

Alegiazko eurotik eragiketa guztietarako eurora

1999ko urtarrilaren 1ean Ekonomi eta Moneta Batasunaren (EMB) hirugarren faseari hasiera eman zitzaionean, aurrekaririk gabeko une gogoangarria gertatu zen Europako bategitearen prozesuan. Data horretan, hirugarren fasean parte hartu zuten herrialde guztiek euroa onartu zuten diru nazional gisa. Horrek herrialde horretan ordura arte diru nazional izan ziren guztiak euroarekin ordezkatzeko ekarri zuen, besteak ordainketa eta kobrantza fisikoak egiteko besterik erabili ahal zirelarik. Aurretik, 1998ko abenduaren 31n, Europar Batasuneko Kontseiluak diru nazionalak euroarekiko izango zuten truke tasa finko eta aldaezina erabaki zuen eta, halaber, Europako Banku Zentralak (EBZ) eta Banku Zentralen Europako Sistemak (BZES) izango zituzten funtzio guztiak abiaraztea erabaki zuen.

Teoria ekonomikoaren ikuspegitik, erakundeen eraldaketa guzti horiek helburu jakin bat zuten: ordura arte ibilitako bidea osatzea, azken helburua moneta batasun benetako bat eratzea delarik. 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen, ekonomi batasunak kapitalen zirkulazio librea, finantza eta banku merkatuen bategitea ahalbidetua zuen dagoeneko. Hau da, egin beharreko zenbait erabaki hartuak izan ziren dagoeneko, baina garrantzitsuena falta zen oraindik: parte hartzen zuten txanponen truke tasa aldaezina finkatzea. Bakarrik azken urrats hori eman ondoren ekin ziezaiokeen moneta eta truke politika bakarria osatzeari eta egikaritzeari, horiek baitira, azken batean, edozein moneta batasunen izateko arrazoia.

Horregatik, eta euro fisikorik gabe baina euro birtual batekin, Ekonomi eta Moneta Batasuna (EMB), data horretatik aurrera eragiketa guztietan moneta esparru gisa funtzionatu da eta moneta zein kreditu eskaintzaren alorrean, interes tasetan eta moneta politikako bestelako tresnetan erabaki zentralizatuak hartu ditu.

Halaber, arrazoi politikoak direla eta, baita funtzionamenduaren gaineko sinesgarritasuna lortzearen ere, diru bakarra ezarri zen eremu osorako, euroa, alegia. Era berean, hiru urteko epe baten ostean, euroak diru nazionalak fisikoki (billeteak eta txanponak) ordezkatzeko zituen. Baina erabaki guzti horiek, berez, ez ziren ezinbestekoak moneta batasuna eratzeko.

2002. urteko urtarrilaren 1ean hiru urteko epe hori amaituko da eta eurotan izendatutako billeteak eta txanponak hasiko dira zirkulatzen. Herritar asko data horretan jabetuko dira euroaren benetakotasunaz, dagoeneko beste esparru batzuetan eguneroko kontua izan bada ere.

Del euro virtual al pleno funcionamiento del euro

Cuando el 1 de enero de 1999 se dio comienzo a la tercera fase de la Unión Económica y Monetaria (UEM), se produjo un hito histórico sin precedentes en el proceso de integración europea. En esa fecha, el euro se instauró como moneda nacional de los países participantes en la tercera fase, lo que supuso la sustitución legal de las distintas monedas nacionales por el euro en dichos países, quedando estas relegadas a divisiones del euro para la realización de los cobros y pagos físicos. Como paso previo, el 31 de diciembre de 1998 el Consejo de la Unión Europea adoptó los tipos de cambio fijos e irrevocables a cada una de las monedas nacionales a las cuales el euro sustituyó, y dio comienzo al ejercicio pleno de funciones por parte del Banco Central Europeo (BCE) y del Sistema Europeo de Bancos Centrales (SEBC).

Desde el punto de vista de la teoría económica, todas estas transformaciones institucionales tuvieron un objetivo inequívoco: completar lo andado hasta entonces con la meta final en la creación de una auténtica unión monetaria. Con antelación al 1 de enero de 1999, la unión económica ya había permitido disfrutar de libre circulación de capitales, integración de mercados financieros y bancarios, es decir, ya se había cumplido con requisitos necesarios, pero faltaba el más importante, la fijación irrevocable de los tipos de cambio de las monedas partícipes. Solamente desde el cumplimiento de esta última premisa era posible proceder a la elaboración y ejecución de una política monetaria y cambiaría única que son y constituyen, a la vez, la razón de ser de toda unión monetaria.

Por eso, y sin la presencia de un euro físico aunque sí con un euro virtual, la Unión Económica y Monetaria (UEM) europea, como tal área monetaria, ha venido funcionando a pleno rendimiento desde aquella fecha, adoptando decisiones centralizadas en materia de oferta monetaria y crediticia, tipos de interés, y otros instrumentos de política monetaria.

Además, por motivos políticos, de credibilidad incluso de funcionamiento, se estableció una moneda única para toda el área, esto es, el euro, y que, asimismo, tras un período transitorio de tres años, el euro terminaría provocando la sustitución física de las monedas nacionales en cuanto a efectivo (billetes y moneda fraccionaria), pero fueron decisiones no estrictamente necesarias para la configuración de la unión monetaria.

A partir del 1 de enero del 2002 finaliza el período transitorio y comenzarán a circular los billetes y monedas denominados en euros. Para muchos ciudadanos será a partir de esa fecha cuando se haga tangible lo que hasta entonces era ya una realidad incuestionable en otros ámbitos.

Zalantzarik gabe, euroaren izaera fisikoak EMBren prezioen gardentasunean balio erantsia izango du, baina, azken batean eta EMBan bizitza ekonomikoa arautzen duten parametroen ikuspegitik, alde horretan lortuko den irabazia hutsala izango da, zeren enpresek eta ekonomi eragileek dagoeneko 1999ko urtarrilaren 1ean banean hartu baitzituzten truke tasen aldaezintasuna eta hori da, azken buruan, alderdirik garrantzitsuen.

Diru berria ezartzeko erabakiak hainbat ahalegin ekarri ditu berekin zenbait esparrutan: enpresek kontabilitateko eragiketak eurotan bakarrik egin ahal izateko egokitzapenak egin behar izan dituzte; banku eta finantza erakundeek bezeroei diru berria eskaini dizkiete eragiketak; eta, azkenik, familiak diru berria erabiltzera ohitu beharko dira. Baina oinarrizko eskema eta sistemaren parametro erabakigarriak, ekonomiaren ikuspegitik, behin-behineko hiru urte horietan izan ziren berak izango dira hemendik aurrera.

Epe horretan, EMBren eremuko merkataritzan parte hartzen zuten EAEko enpresek osorik onartu zuten bi alderen arteko truke tasa ez zela gehiago izango ordura arte izan zen tresna, zeinaren bitartez, onerako edo txarrerako, atzerriko merkatu horietan sartzea eta sakontzea lortzen baitzituzten eta bane merkatuan kanpoko lehiakideetatik babesten baitziren. Zenbait baldintzatzaile, hala nola atzerriko eskarien hazkundera, bertoko produktuen salneurriak, kalitatea, diseinua, dibertsifikatzeko estrategiak, euroaren kotizazioa eta abar, azaldu ziren orduan eta EAEko enpresen aldagai garrantzitsuenak izatera pasatu ziren. Horiek berak izango dira 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera kontuan hartu beharko dituzten aldagaiak.

Azaldutako guztiaren ondoren, diru berri hori fisikoki herritarren eguneroko bizitzan sartzea falta da. Europako prozesu orokor horrekin bat eginez, EAEko administrazioak diru berrira egokitzeko lan garrantzitsua eta berariazkoa egin du. Ildo horretan, eurotan izendatutako urteko lehen aurrekontuak osatu eta abian jarri ditu.

Sin duda alguna, la presencia física del euro supondrá un añadido a la transparencia en los precios de la UME, pero, al fin y al cabo, y desde el punto de vista de los parámetros que rigen la vida económica en la UME, la ganancia será mínima, por cuanto que las empresas y agentes económicos ya interiorizaron plenamente la irrevocabilidad de los tipos bilaterales fijos en sus relaciones desde el 1 de enero de 1999, que es, en última instancia, el elemento relevante.

Las tareas de adaptación de las contabilidades de las empresas a operar sólo en euros, los esfuerzos de las entidades bancarias y financieras para ofrecer las operaciones con sus clientes en la moneda única y, finalmente, la habituación de las familias al uso de una nueva moneda son retos derivados de llevar a la práctica y hasta sus últimas consecuencias la implantación de la nueva moneda. Pero el esquema básico, los parámetros decisivos del sistema desde el punto de vista económico son los mismos que han regido en el período transitorio.

Durante ese período, las empresas vascas que participaron del comercio en el área de la UME asumieron plenamente que el tipo de cambio bilateral dejó de ser el instrumento antaño tan definitorio, para bien y para mal, de sus capacidades para introducirse y profundizar en esos mercados foráneos ó para defenderse de sus competidores exteriores en el mercado doméstico. Condicionantes tales como crecimiento de las demandas foráneas, precios de los productos propios, calidad, diseño, estrategias de diversificación, cotización del euro, etc., que afloraron con rotundidad y se constituyeron desde entonces en las variables relevantes de las empresas vascas seguirán teniendo la misma plenitud a partir del 1 de enero de 2002.

Tras todo lo mencionado, queda pendiente incorporar a la vida cotidiana de los ciudadanos esa nueva moneda de forma física y, uniéndose al proceso global, la administración vasca ha realizado una tarea importante y específica de adaptación a la nueva moneda, cuya expresión más pública es la elaboración y puesta en marcha de los primeros presupuestos anuales en euros.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI


EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

CONTEXTO DE LA ECONOMIA VASCA

Munduko ekonomia moteltzeko ibilbide batean dago murgilduta 2000. urteko bigarren erditik, eta 2001eko lehen sei hilekoan ere jardura erritmoak gero eta apalagoak izan ziren. Hain zuzen ere, herrialde nagusietako hazkunde tasak bigarren hiruhilekoan gutxitu direla egiaztatu izanak susperraldiaren aurreikuspena berrikustera behartu du, hasiera, dagoeneko, 2002. Urtera atzeratu baita.

Desde la segunda mitad del año 2000, la economía mundial mantiene una trayectoria de desaceleración, que en el primer semestre de 2001 continuó frenando su ritmo de actividad. De hecho, la constatación de que las tasas de crecimiento de los principales países han empeorado en el segundo trimestre ha revisado las previsiones de la esperada recuperación del segundo semestre, que queda pospuesta para el año 2002.

3. irudia / Gráfico nº 3 BPG errealaren hazkundea Crecimientos comparados del PIB real



Iturria: OCDE.
Fuente: OCDE

Halaber, irailaren 11ren zorigaitzoko gertakarien ondoren zaila da ekonomiaren bilakaerak datozen hilabeteetan norantz joko duen zehaztea. Beharrezkoa izango da urte amaiera arte agertu daitezkeen mota askotariko zalantza politikoak, militarrek eta sozialak argitzea. Agintari monetarioak ondorioak gutxitzen ahalegindu dira interes tasak beharrez, merkatuak lasaitzeko eta ekoizpena suspertzeko asmoz.

Además, tras los trágicos sucesos del 11 de septiembre resulta difícil precisar cuál será la evolución económica durante los próximos meses en tanto no se vayan despejando las incógnitas de tipo político, militar y social, que en un amplio espectro pueden barajarse hasta final de año. Las autoridades monetarias han intentado minimizar sus repercusiones con bajadas de tipos para tranquilizar a los mercados y activar la producción.

Hala ere, ekonomia aztertzen duten nazioarteko erakunde nagusiek beherantz zuzendu dituzte aurreko aurreikuspenak, baina balizko parte hartze militar baten hondamenezko ondorioak gutxituz. Izan ere, ezin da zalantzan jarri ekonomi koiunturan ziurgabetasuneko alderdiak sartzeak ez duela laguntzen baikortasuneko giroa sortzen, bereziki oraingoa bezalako aldaketa une batean.

Arreta guztia Estatu Batuetako portaeran dago jarrita, interes tasak azken 40 urteetako maila apalenean kokatu baititu. Izan ere, 2001. Urteko lehen erdian aurreko urteko bigarren hiruhilekoan hasitako apaltzeko joera areagotu zen. Zehazkiago adierazita, herrialde hartako ekonomia aurtengo lehen erdian %1,9 hazi da, 2000. urteko %4,1aren aldean. Are gehiago, bigarren hiruhilekoan hazkundea txikiagoa izan zen. Hain zuzen ere, %1,2 besterik ez zen hazi, lehen hiruhilekoan baino puntu bat eta hiru hamarren gutxiago eta aurreko urteko epe berean baino ia lau puntu gutxiago.

Jardueraren moteltzea barne eskaririk, eta bereziki inbertsioetik, etorri da, zeren kontsumoa gutxiago apaldu baitzen eta %3tik gorako tasei eutsi baitziren. Kanpo eskariaren ekarpen negatiboa txikiagoa izan zen, inportazioak behe-
ra egin zuelako, nahiz eta esportazioa ere zeinu negatiboan kokatu.

Ekoiizpenaren ahultasunak bere eraginak utzi ditu lan merkatuan eta, lehenengo aldiz 1992. urtetik, urteko lehen sei hilabeteetan langabezi tasak gora egin zuen, %4,5ean kokatu arte. Prezioei dagokienez, inflazioan ez zen tentsiorik hauteman, baina hobekuntzarik ere ez.

Ekonomia industrializatuen artean, Japonia izan zen berriro emaitza txarrean jaso zuena. Urteko lehen erdian, BPG erreala %0,3 gutxitu zen, aurreko urtean, batez beste, %1,5 hazi zen bitartean. Aurtengo bigarren hiruhilekoan hazkundea oraindik txikiagoa izan zen (%-0,7). Jaitsiera horren arrazoiak bi dira: alde batetik, barne eskariak ahultasuna erakusten jarraitu zuen eta, beste aldetik, kanpo arloak ekarpen negatiboa egin zion BPGren hazkundeari. Atzeraldiko testuinguru horretan, salneurriek deflazioko joera hartu zuten eta langabezi tasak gora egin zuen.

Nahiz eta gobernuak ekonomia suspertzeko hainbat neurri sorta hartu dituen eta finantza arloko arazo larriak konpontzeko erreformak abiarazi diren, Japoniako ekonomia ez da gai izan bere emaitza txarrak gainditzeko eta hurrengo hilabeteetan gaindituko dituelako zantzurik ez da igartzen.

No obstante, los principales organismos internacionales de análisis económico han procedido a revisar a la baja sus previsiones anteriores, pero intentando suavizar los argumentos catastrofistas de posibles intervenciones bélicas. Lo que es indudable es que la introducción de elementos de incertidumbre no contribuye a generar el escenario deseable de optimismo para una coyuntura económica en un momento de cambio como el actual.

Todas las miradas están puestas en el comportamiento de Estados Unidos, que ha colocado sus tipos en el porcentaje más bajo de los últimos 40 años, puesto que vio ampliarse, en la primera mitad del año 2001, la trayectoria de desaceleración que iniciara en el segundo trimestre del año anterior. Más concretamente, creció un 1,9% frente al 4,1% con el que cerró el año 2000, con un dato del segundo trimestre muy inferior. La tasa de ese trimestre del 1,2% significa crecer un punto y tres décimas menos que en el primero y casi cuatro puntos menos que un año antes.

El freno de actividad proviene de la demanda interna, esencialmente de la inversión, ya que el consumo lo hizo en una intensidad menor y se mantuvo en tasas superiores al 3%. La aportación negativa de la demanda exterior se redujo, ya que la importación se redujo, aunque también la exportación adoptó signo negativo.

La debilidad productiva tuvo efectos en el mercado laboral, ya que en los primeros seis meses del año se registró, por primera vez desde 1992, una elevación en la tasa de paro hasta el 4,5%. En cuanto a los precios, no se registran tensiones inflacionistas, pero tampoco mejoras.

El peor resultado entre las economías industrializadas siguió viniendo de Japón. En la primera mitad del año su PIB real cayó un -0,3% frente a un crecimiento medio del año anterior del 1,5%, siendo en el segundo trimestre aún más bajo (el -0,7%). Este descenso se debió a que, además de que la demanda interna siguió dando muestras de agotamiento, el sector exterior tuvo un aporte negativo al crecimiento del PIB. En este escenario de recesión, los precios tendieron a un proceso de deflación, en tanto que la tasa de desempleo repuntó.

A pesar de los sucesivos paquetes de impulso público y la puesta en marcha de reformas para solventar los graves problemas de su sector financiero, la economía japonesa no consigue remontar sus malos resultados y no se aprecian signos de hacerlo en el futuro inmediato.

Europar ekonomiek, berriz, onartzeko moduko erritmoa erakusten dute oraindik, baina, Estatu Batuetako ekonomia bezala, apaltzeko prozesuan daude murgilduta. Hala eta guztiz ere, ezin izan dute inflazio apaleko helburua bete, neurri handi batean petrolio gordinaren nazioarteko merkatuen egoerak eta euroak dolarrarekiko duen kotizazioak baldintzatuta.

Por su parte, las economías europeas siguen mostrando un ritmo aceptable pero, al igual que la economía norteamericana, se encuentran en un pleno periodo de desaceleración, a pesar de lo cual no logran cumplir su objetivo de moderada inflación, muy influenciada por la situación de los mercados internacionales de crudo y de la cotización del euro respecto del dólar.

1. taula / Cuadro nº 1
Ekonomiaren aldagai nagusiak
Principales variables económicas

	2000	2000		2001		
	batez b. media	III hiru. III trim.	IV hiru. IV trim.	I hiru. I trim.	II hiru. II trim.	
BPG errealaren hazkundera						Incremento del PIB real
EEBB	4,1	4,4	2,8	2,5	1,2	EE.UU.
Japonia	1,5	0,3	2,5	0,2	-0,7	Japón
Europar Batasuna	3,4	3,2	2,8	2,4	1,7	UE
Alemania	3,2	3,2	2,5	1,8	0,6	Alemania
Frantzia	3,4	3,4	3,1	2,8	2,3	Francia
Erresuma Batua	3,1	2,7	2,4	2,7	2,3	Reino Unido
Inflazioa						Inflación
EEBB	3,4	3,5	3,4	3,4	3,4	EE.UU.
Japonia	-0,6	-0,7	-0,5	-0,1	-0,4	Japón
Europar Batasuna	2,1	2,2	2,4	2,2	2,9	UE
Alemania	1,9	2,1	2,3	2,5	3,2	Alemania
Frantzia	1,7	1,9	1,9	1,3	2,0	Francia
Erresuma Batua	2,9	3,2	3,1	2,6	1,9	Reino Unido
Langabezi tasa						Tasa de paro
EEBB	4,0	4,0	4,0	4,2	4,5	EE.UU.
Japonia	4,8	4,7	4,8	4,8	4,9	Japón
Europar Batasuna	8,2	8,1	7,9	7,7	7,6	UE
Alemania	9,6	9,4	9,3	9,3	9,3	Alemania
Frantzia	9,7	9,6	9,3	8,8	8,7	Francia
Erresuma Batua	3,6	3,5	3,4	3,3	3,2	Reino Unido

Iturria: OCDE.
Fuente: OCDE

Jarduerak erakutsi duen bilakaeraren erantzule nagusietako bat Alemania da. Izan ere, herrialde hartako BPG %1,2 besterik ez da hazi urteko lehen erdian. Areago, urteko bigarren hiruhilekoan ekonomiaren hazkundea %0,6 baino ez zen igo, azken lau urteetako hazkunde tasa apalena delarik. Eraitza horren arrazoia barne eskariaren jaitsiera (%-0,3), bereziki inbertsioarena, izan da, zeren kontsumo pribatuak espero zena baino portaera hobea izan baitzuen. Aldagai horren bilakaera, hasiera batean, hurrengo hiruhilekorako hobekuntza igartzen ari zela pentsarazi zuen, baina ondorengo ziurgabetasun maila areagotu izanak zalantzan utzi du balizko suspertze hori gauzatzeko aukera.

Alemaniaiko ekonomiaren aldakuntza apal horrek ez zuen ahalbidetu lan merkatuan langabezi tasa gutxitzeko aurrerapenik lortzea. Prezioek, berriz, goranzko joerari eutsi zioten eta inflazioa %3,2ra iritsi zen. Hirugarren hiruhilabeteko datuetan, salneurrien bilakaeran apaltzeko joeraren hasiera hauteman zen, erregaien prezioak merkatu zirelako.

Adierazitako guztia dela eta, Alemaniaiko ekonomiaren bilakaerak etengabeko eta tamaina handiko beheranzko berrikusteak izan ditu, puntu batetik gorakoa bai urte amaierarako bai datorren urterako.

Era berean, Frantziak Europako beste ekonomia zenbaitek erakutsi duten eredu bera erakutsi du, baina erritmo handiagoan mugitzen da. Izan ere, gutxiago hazi zen urteko lehen erdian (%2,5) eta apaltzeko joera hori urteko bigarren hiruhilekoan areagotu zen, baina Europako gainontzeko herrialdeetan baino gutxiago. Hala eta guztiz ere, gehien hazi ziren herrialdeetatik bat izan zen. Behin berriro, agerian dago barne eskaria BPGren hazkundeari ekarpen handiena egin zion osagaia izan zela. Familien kontsumo pribatua aurreko hiruhilabeteko maila bertan kokatu bazen ere, enpresen inbertsioak nabarmen egin zuen behera. Kanpo arloa, berriz, neurri handian makaldu zen, baina kanpo saldoaren ekarpena oraindik positiboa izan zen, esportazioek jaitsiera sakona izan zuten arren.

Enpleguari dagokionez, egoera ahulago horrek bere eragina izan zuen lanpostuak sortzeko erritmoan. Hain zuzen ere, langabezi tasak hamarren bat besterik ez zuen behera egin eta %8,7an kokatu zen. Aldi berean, inflazio tasak gorakada handia izan zuen, lehen hiruhilabeteko %1,3tik bigarreneko %2ra. Hala ere, oraindik euroaren esparruko tasarik apalena izateari eutsi zion.

Una gran responsabilidad de la evolución de la actividad la tiene el hecho de que el PIB de Alemania tan solo haya aumentado un 1,2% en la primera mitad del año, hecho que se agudizó en el segundo trimestre del año al cifrarse el crecimiento en el 0,6%, el porcentaje más bajo de los cuatro últimos años. La causa de este resultado fue la caída de la demanda nacional (-0,3%), en especial de la inversión, ya que el consumo privado se comportó por encima de lo esperado. Esta evolución, en principio, se interpretó como un indicio de mejoría para el siguiente trimestre, pero la elevación del grado de incertidumbre posterior cuestiona la posibilidad de su materialización.

Esta pobre variación de la economía alemana no permitió que, en el mercado de trabajo, se logaran avances que permitieran reducir la tasa de paro, aunque los precios mantuvieron la trayectoria ascendente, de tal manera que la inflación alcanzó el 3,2%. En los datos del tercer trimestre se inició una desaceleración en la tendencia de los precios como consecuencia de los menores precios de los combustibles.

Por lo comentado, la evolución de la economía alemana es una de las que ha recibido mayores y constantes revisiones a la baja, de más de un punto para el cierre del año y el año siguiente.

Igualmente, Francia se ajusta al modelo de comportamiento para otras economías europeas, aunque con mayor pulso. También creció menos en la primera mitad del año, 2,5%, contracción que se agravó el segundo trimestre del año, si bien la desaceleración fue más moderada que en el resto de los países europeos y uno de los que más se expandió. De nuevo, se puede observar que la demanda interior fue el componente que más contribuyó a la variación del PIB, y mientras que el consumo de las familias permaneció prácticamente al mismo nivel del trimestre anterior, la inversión empresarial descendió considerablemente. El sector exterior, por su parte, se ralentizó de manera muy importante, aunque la aportación del saldo exterior aún fue ligeramente positiva y a pesar del fuerte descenso que manifestaron las exportaciones.

Por lo que respecta al empleo, la situación tuvo reflejo en el ritmo de creación de puestos de trabajo. Así, la tasa de paro tan solo se redujo en una décima para, de esta forma, situarse en el 8,7%. En paralelo, la tasa de inflación sufrió un significativo repunte que le llevó de una tasa del 1,3% del primer trimestre al 2%, a pesar de lo cual siguió siendo la más baja de la zona euro.

Hurrengo hilabeteetarako, ekonomiaren aztertzaileek uste dute Frantziak bilakaera apalagoa izango duela, baina oraindik %2aren inguruan kokatuko dela. Portaera ez oso bizi baina iraunkor horrek EAEko ekonomiaren salerosketek merkatu horretan gorabehera txikiagoak izan ditzaketela iradokitzen du, Alemanian ez bezala non bat-bateko aldaketa sakonak gertatzen baitira. Bi herrialde horiek dira EAEko salmenten bezero nagusiak.

Azkenik, Erresuma Batuak ekoizteko erritmoari hobeto eutsi zion, moteltze txikiagoa eta hazkunde altuak izan dituelarik. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan %2,3 hazi zen. Langabezi tasa hamarren bat jaitsi zen eta parte hartzen duen biztanleriaren %3,2an dago kokatuta, aipatutako herrialde guztietatik txikiena, alde handiz gainera. Kontsumo prezioak, berriz, nabarmen apaldu ziren eta inflazio tasa urteko lehen hiruhilabeteko %2,6tik bigarreneko %1,9ra jaitsi da.

Espainiako ekonomiari dagokionez, ingurune gainontzeko herrialdeen ibilbide bera egin zuen. Hots, 2000. urtearen erdialdetik aurrera beharrezko joera erakutsi du, bigarren hiruhilekoan bereziki areagotu dena. Horren ondorioz, urtebete baten epean BPGren gehikuntza tasa puntu bat baino gehiago gutxitu da. Behin berriro, Espainiako ekonomia bere ingurune hurbileneko herrialde dinamikoena izan da. Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, hazkunde txikiagoaren jatorria ez zen barne eskaria izan, kanpo arloa baizik, BPGren hazkundeari lau hamarreneko ekarpena egitetik hamarren bakarrekoa egitera igaro baita.

Eskariaren ikuspegitik, adierazi behar da azken kontsumoa apaltzen jarraitu zela eta inbertsioa, berriz, areagotu zela, bai ekipamendurako ondasunetan bai eraikuntzan egindako inbertsioan. Azken osagai horretan, azpiegiturretan egindako inbertsioa izan zen eraikuntzan egindako inbertsioaren bilakaera baldintzatu zuena, zeren eraikinetan egindakoak indar gutxiago erakutsi baitzuen. Beste aldetik, hiruhilabetekako kontabilitateak ekipamendurako inbertsioan ematen dituen datuak aztertze orduan, kontuan hartu behar da oraindik orain bere joera berrikusi duela, ekipamendurako ondasunen baliabideek lortu duten balio garrantzitsuen ondorioz, esportazioaren eta inportazioaren arteko aldean oinarrituta. Egoera hori hurrengo datuekin baieztatu beharko da.

Kanpo arloari dagokionez, barne produktu gordinaren hazkundeari egin zion ekarpena hamarren batera mugatu zen, azken hiruhilabeteetako ibilbidea baztertuz, zeinetan ekarpena gero eta handiagoa izan baitzen. Norabide aldaketa honen oinarrian esportazioen moteltzea dago eta inportazioek ere indarra galdu zuten arren neurri txikiagoan apaldu ziren.

Para los meses posteriores, los analistas apuestan por que Francia tenga una evolución menos expansiva, pero todavía en cifras en torno al 2%. Este comportamiento moderado, pero sostenido, puede servir para adelantar unas oscilaciones menos pronunciadas de los intercambios de la economía vasca con ese mercado frente a los cambios bruscos de intensidad de la economía alemana, ambos clientes preferentes de las ventas al exterior.

Finalmente, el Reino Unido sostuvo mejor su ritmo productivo, con cifras en pendiente mucho menos descendente y porcentajes altos, así en el segundo trimestre se situó en un 2,3%. La tasa de paro, incluso, se redujo en una décima, en el 3,2% de la población activa, la más baja con diferencia de las reseñadas. Por otro lado, los precios de consumo se moderaron de forma importante rebajando la tasa de inflación del 2,6% del primer trimestre del año al 1,9% del segundo.

Por lo que respecta a la economía española, siguió la misma trayectoria del resto de países del entorno económico, es decir, desde mediados de 2000 muestra una tendencia descendente de su ciclo, que se agudizó aún más el segundo trimestre, de tal manera que perdió más de un punto de la tasa de incremento del PIB. Una vez más, la economía española fue la más dinámica de las que componen su entorno económico más directo. A diferencia de trimestres anteriores, el origen del menor crecimiento no fue la demanda interna, sino el sector exterior, que pasó de aportar cuatro décimas al crecimiento del PIB a tan solo una décima.

Desde la óptica de la demanda, podemos señalar que el consumo final siguió retrayéndose, mientras que la inversión presentó una aceleración, tanto en su componente de bienes de equipo como en el de construcción. En este último caso, fue la inversión en infraestructuras la que determinó la evolución de la inversión en construcción, ya que la destinada a edificación presentó un menor empuje. Por otra parte, a la hora de valorar los datos de la contabilidad trimestral sobre el componente de inversión en equipo se debe tener en cuenta que se ha revisado su tendencia en función de los importantes valores de la disponibilidad de bienes de equipo, ya que nace de un diferencial entre exportación e importación, situación que deberá afianzarse en posteriores informaciones.

Por cuanto respecta al sector exterior, su aportación al PIB fue de tan solo una décima, que significó una ruptura en la trayectoria de los últimos trimestres, en los que su aportación fue progresivamente más elevada. Este cambio de rumbo se fundamentó en que las exportaciones vienen desacelerándose y que, aunque las importaciones también frenaron su avance, lo hicieron en menor medida.

2. taula/Cuadro nº 2
Estatuko ekonomiaren aldagai nagusiak
Cuadro macroeconómico estatal

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	2000	2000		2001		
		III	IV	I	II	
Azken kontsumoko gastua	4,0	3,8	3,2	2,8	2,5	Gasto en consumo final
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,7	5,2	3,6	2,9	3,7	F.B.C.F.
Izakinen aldakuntza (*)	-0,1	-0,2	0,1	0,0	0,1	Var. existencias (*)
Barne eskaria	4,2	3,9	3,2	2,8	2,8	Demanda Nacional
Ondasun eta zerbitz. esportazioak	9,6	10,1	9,4	7,7	5,9	Exportaciones bienes y servicios
Ondasun eta zerbitz. inportazioak	9,8	9,4	7,7	6,1	5,3	Importaciones bienes y servicios
BPG (merkatu prezioetan)	4,1	4,0	3,6	3,3	3,0	PIB (p.m.)
Nekazaritza eta arrantza	1,5	1,7	1,4	1,7	1,3	Agricultura y pesca
Energia	4,0	4,6	5,8	6,6	6,9	Energia
Industria	4,0	3,8	2,7	2,2	1,9	Industria
Eraikuntza	6,3	6,2	6,1	6,1	6,0	Construcción
Zerbitzuak	3,9	3,8	3,5	3,3	3,0	Servicios
BEZ	5,1	5,0	3,2	1,2	0,3	IVA
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,2	5,2	4,5	3,8	3,7	Imptos. netos sobre productos
GOGORATZEKOAK:						PRO-MEMORIA:
Kontsumo prezioen indizea	3,4	3,6	4,0	3,8	4,1	IPC
Enplegua (**)	3,1	3,2	3,2	3,0	2,6	Empleo (**)

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena.

(**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: INE

(*) Aportación al crecimiento del PIB

(**) Empleo equivalente a tiempo completo

Fuente: INE

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera bizienerako adarra energiakoa izan zen berriro (%6,9). Halaber, aurreko hiruhilekoan baino hazkunde handiagoa lortu zuen adar bakarra izan zen. Beraren ondotik, eraikuntza aipatu behar da, gehikuntza tasa garaiak lortu baitzituen, aurreko urteko ahalmen sendoari eutsiz. Aitzitik, zerbitzuek beren hazkundera %3ra gutxitu dute. Hazkunde txikiago hori merkaturatzen diren adarretan zein merkaturatzen ez direnetan nabaritu da. Industriako adarrei dagokienez, %1,9 areagotu zuten beren jarduera eta, horren ondorioz, aurreko hiruhilabeteetan erakutsi zuten galgatzeko erritmoa zertxobait leundu da.

Enpleguaren alorrean, hiruhilekako kontabilitate nazionalak eskaini dituen datuetan nabaria da apaltzeko joera ez dela amaitu. Izan ere, enplegu sorrera, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %2,6ra murriztu da. Biztanleria aktiboaren gaineko inkestak, berriz, enpleguaren hazkundera eta langabezi tasa, urte arteko tasan neurtuta, gutxitu direla erakutsi du. Hala ere, langabezi tasak puntu erdi bat egin zuten behera lehen sei hilekoan eta epe horren amaieran lan merkatuan parte hartzen duen biztanleriaren %13an kokatu zen.

Inflazioari dagokionez, urte hasieratik izan duen bilakaera ezin da oraindik positibotzat jo, nahiz eta azken hilabeteetan zenbait aurrerapen lortu diren. Izan ere, urteko lehen hilabeteetan urte arteko aldakuntza tasak bilakaera txarra izan zuten eta %4,2ra areagotu, baina ekainean hazkunde erritmoa moteltzeko joerari ekin zion eta, hori horrela izanda, bi hilabete nahiko izan ziren prezioen aldakuntza erritmoa puntu erdi bat gutxitzeko, %3,7an kokatu arte.

Hala eta guztiz ere, inflazio tasaren beherakada hori indize orokorraren osagairik gorabeheratsuenetariko batek (energiakoak, alegia) eragin du, petrolio gordinaren prezioa nazioarteko merkatuetan jaitsi izanak eta euroak balioa irabazi izanak lagunduta. Baina, aldi berean, gainontzeko ekoizkintan aldakuntza tasak gutxitzeko zailtasunak daude. Hain zuzen ere, ekoizkintza gabeko indize orokorra abuztuan %4,3an zegoen kokatuta, hots, hiru hilabete lehenago zegoen tasa berean.

Era berean, azpiko inflazioak ere ez zuen zuzentzeko joerarik erakutsi eta %3,6aren inguruan jarraitzen du egonkor, urteko lehen hilabeteetan etengabe igo ondoren. Izan ere, azken hiru hilabeteetan, industriako ondasunek eta zerbitzuek salneurriak zertxobait apaldu bazituzten ere, landutako elikagaiek (olioek, bereziki) aurkako bideari ekin zioten, besteek ekarritako onurak berdinduz. Ondasun taldeka, inflazioa batez bestearen gainetik dago hotelak, kafetegiak eta jatetxeak izenekoan (%7,1), elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak delakoan (%6,7), irakaskuntzan (%5,0) eta bestelakoetan (%3,8).

Desde el punto de vista de la oferta, la rama de actividad más dinámica volvió a ser la energética (6,9%), que fue además la única que obtuvo un crecimiento superior al del trimestre anterior. Le siguió la construcción, que estando en aumentos elevados, permaneció prácticamente a la misma potencia que un año antes. Por el contrario, los servicios vienen amortiguando su crecimiento hasta el 3%, afectando este menor crecimiento tanto a las ramas de mercado como a las ramas no destinadas al mercado. En cuanto a las ramas industriales, estas incrementaron su actividad en un 1,9%, que supone una menor pendiente de contracción que la que venía teniendo en trimestres anteriores.

Por cuanto respecta al empleo, los datos ofrecidos por la contabilidad nacional trimestral muestran también una continuidad en la trayectoria desacelerada, en términos de puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo, reduciéndose la tasa de creación de empleo hasta el 2,6%. La encuesta de población activa, por su parte, muestra que las tasas interanuales de crecimiento del empleo y el ritmo de descenso del paro disminuyen. No obstante, la tasa de paro logra descender medio punto en el primer semestre hasta el 13% de la población activa al final del periodo.

Respecto a la inflación, la evolución desde el comienzo del año no puede calificarse todavía de positiva, aunque en el tramo final se hayan producido algunos avances. Efectivamente, tras haber registrado en los primeros meses del año una evolución interanual desfavorable que la había situado en el 4,2%, los precios de consumo iniciaron en junio una fase de desaceleración en su ritmo de crecimiento y, así, en tan solo dos meses el ritmo de variación de los precios se moderó en medio punto, hasta situarse en el 3,7%.

No obstante, este descenso de la tasa de inflación se ha debido a uno de los componentes más volátiles del índice general, el energético, que se ha beneficiado de los descensos en los precios del barril de petróleo en los mercados internacionales y de la apreciación del euro, mientras que el núcleo central de productos se resiste a moderar sus variaciones. Concretamente, el índice general sin productos energéticos se situaba en agosto en la misma tasa (4,3%) que estaba tres meses antes.

Igualmente, la inflación subyacente tampoco dio muestras de corrección y permanece estable en el entorno del 3,6%, tras haber aumentado constantemente en los primeros meses del año. Así, mientras que los bienes industriales y los servicios moderaron ligeramente sus subidas de precios en los últimos tres meses, los alimentos elaborados (especialmente los aceites) evolucionaron en sentido contrario hasta anular los beneficios generados por aquellos. Por grupos de bienes, la inflación supera la media en hoteles, cafés y restaurantes (7,1%), alimentos y bebidas no alcohólicas (6,7%), enseñanza (5,0%) y otros (3,8%).

Europako herrialdeetako prezioen batez bestearekiko aldea hamarren bat besterik ez da murriztu azken hiru hilabeteetan eta bederatzi hamarrenekoa da. Hain zuzen ere, kontsumo prezioen indize harmonizatua %3,6 izan zen abuztuan eta Holandak, Portugalek, Greziak eta Irlandak besterik ez zuten tasa hori gainditzen.

Inflazioa egonkortasunerako helburutzat hartu den %2tik oso gaintetik zegoenez, agintari monetarioek ezin izan zuten interes tasak gutxitu, ahultzen ari zen ekonomi jarduera suspertzeko. Hasieran zuhur jokatu bazuten ere, maiatzetik aurrera hiru aldiz jaitsi dituzte interes tasak. Azkena, irailaren 11ko gertakarien ostean, merkatuetan baikotasuna txertatzeko beharrak bultzatuta. Europako Banku Zentralaren interes jaitsierak bankuetako tasetara igaro dira eta Espainian interes tasa errealak auzoko herrialdeetan baino gehiago jaitsi dira.

Arlo publikoari dagokionez, urteko lehen sei hilabeteetan Estatuko kutxa defizita 8.017 milioi eurora igo zen, %34,9ko gehikuntza delarik. Arrazoia zergen itzulketen aurreratze garrantzitsua izan da. Hain zuzen ere, diru sarrerak %-0,3 gutxitu ziren eta ordainketak %3 goratu. Hala ere, gehiegizko diru bilketa hori kontuan hartzen ez badugu ere, emaitza aurreko urtekoa baino txikiagoa da oraindik, zeren BEZaren eta PFEZaren sarrerak %6,6 areagotu baitziren, aurreko urteko %6,8aren aldean. Ordainketen gehikuntzari dagokionez, ohiko transferentziak, pisu handieneko atala baita, %5 hazi ziren, guztizkoaren bilakaera markatuz.

Ekitaldiaren amaierarako, sarrerak eta gastuak orekatuko direla espero da, administrazio publikoetako multzoaren aurrekontuetako defizitak desagerraraziz, aurrekontuen alorrean hori baita ezartzen diren helburuen adierazle garrantzitsuenak. Helburu hori lortzeko azpimarratu behar da Gizarte Segurantzako kontuetako superabita jarraituko dela.

En lo referente al diferencial de precios con Europa, este apenas se ha reducido en una décima en los últimos tres meses y se sitúa en las nueve décimas. Así, el IPC armonizado en el mes de agosto se situó en el 3,6%, tan solo superado por Holanda, Portugal, Grecia e Irlanda.

El hecho de que la evolución de la inflación se moviera en cifras que se alejaban del objetivo de estabilidad en el 2%, impidió a las autoridades monetarias actuar sobre los tipos de interés y reducirlos para auxiliar la actividad contra su debilitamiento. Pese a su inicial cautela, a partir del mes de mayo decidió bajar en tres ocasiones. La última de ellas forzada por la necesidad de inyectar optimismo en los mercados tras los sucesos del 11 de septiembre. Las bajadas de tipos del BCE han ido transmitiéndose a los intereses bancarios y, en España, se ha traducido en una reducción de los tipos reales superior a la de sus vecinos.

Por lo que respecta al sector público, en los seis primeros meses del año el déficit de caja del Estado se elevó a 8.017 millones de euros, que supuso un aumento del 34,9%, como consecuencia del importante adelanto de las devoluciones. Así, los ingresos descendieron un -0,3%, mientras que los pagos aumentaron un 3%. Ahora bien, tras eliminar el exceso ingresado, todavía el resultado fue inferior al de un año antes, puesto que los ingresos por recaudación de IVA y de IRPF crecieron el 6,6% frente al 6,8% precedente. En cuanto al incremento de los pagos, los mayores pagos habidos en las transferencias corrientes, que viene a ser el capítulo de mayor peso, crecieron un 5%, marcando así la evolución del conjunto.

Para el cierre del ejercicio se espera lograr el equilibrio entre ingresos y gastos, que permita la superación de los déficits presupuestarios para el conjunto de las administraciones públicas, que es la pieza fundamental de los objetivos en materia presupuestaria. Para el logro de su cumplimiento cabe destacar el mantenimiento del superávit en las cuentas de la Seguridad Social.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

**EAEKO EKONOMIA 2001. URTEKO LEHEN HILABETEETAN:
ANALISIAREN LABURPENA ETA ARLOEN PORTAERA**

**LA ECONOMIA VASCA EN LOS PRIMEROS MESES DE 2001:
SINTESIS Y COMPORTAMIENTO SECTORIAL**

EAEko ekonomia 2001. urtean. Analisiaren laburpena

Honako txosten hau idazteko orduan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak urteko lehen seihilekoan zer bilakaera izan duen aztertzeko nahiko estatistika datu badago. Oinarri horretan, EAEko ekonomia, 2001. urteko lehen seihilekoan, %3,5 hazi zela estimatu da. Horrek agerian uzten du aurreko urtean hasi zen apaltzeko joera aurten ere jarraitu dela.

Ehuneko hori lehen hiruhilabete biziago baten eta bigarren hiruhilabete apalago baten emaitza da. Hala eta guztiz ere, ekonomia industrializatu askotan gertatu denaren kontra, prozesu hau urratsez urrats leuntzen ari dela ematen du. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan BPGren hazkundea %3,3 izan zen, lehenengo hiruhilekoan lortutakoa baino lau hamarren gutxiago bakarrik. Ondoko taulan ikus daiteke lehen hiruhilekoan sei hamarren galdu zituela aurreko hiruhilabetearen aldean eta, bere aldetik, azken honek zazpi hamarren gutxiago lortu zituela aurrekoaren aldean eta, azkenik, honek aurrekoaren aldean dagoeneko zortzi hamarreneko jaitsiera izan zuela BPGren aldakuntzan. Horiek horrela, 2000. urteko hasieran kokatu beharko da EAEko ekonomian gauzatu den jarduera apaltzeko joeraren jatorria aurkitzeko.

Prozesu guzti hau are garbiagoa izan da barne eskarian, lehen hiruhilekoan ia egonkortu baita. Gertakari horren irakurketa baikor batek EAEko ekonomiaren portaeran inflexio gune batera heldu dela pentsaraz dezake, eta hori da susperraldi baterako behar den lehenengo urratsa. Hori datozen hilabeteetan gertatzea ala ez, neurri batean, ekonomi ingurunean gertatuko denaren menpe egongo da. Hala eta guztiz ere, berriro esan behar da nazioarteko egoeran zalantza handiak daudela eta zaila izango dela egonkortasunerako balizko joera hori laster susperraldi bilakatzea, ez bakarrik aurtengo azken hilabeteetan, baita 2002. urtean ere.

Behin berriro, esan behar da eskualde bateko hiruhilabete bati buruzko estimazioak ulertzeko orduan metodologia kontu zenbait hartu behar direla gogoan. Lehena: estimazio horiek eskura dagoen estatistika informazioarekin seihilekorako egin den lehen analisia da eta, beraz, datu berriak argitaratu ondoren aldaketak egon daitezke, taula makroekonomikoak estimatzen dituzten ekonomia guztietan gertatzen den bezala. Bestetik, erabiltzen ari diren aldakuntzak hamarrenetakoak dira eta, beraz, errakuntzarako bide estua dago. Hori dela eta, zenbait adierazlek egonkortasunerako erakutsi duten joera hurrengo estimazioetan baieztatu beharko da.

La economía vasca en el año 2001. Reflexión de síntesis

A la hora de redactar este informe, ya se dispone de información estadística para poder analizar la evolución de la economía vasca en el primer semestre del año. Sobre esa base, se puede realizar una estimación de crecimiento de la economía vasca del 3,5%, en el primer semestre de 2001, que implica el mantenimiento de la tendencia a la desaceleración iniciada en el año precedente.

Este porcentaje es la resultante de un primer trimestre algo más activo y un segundo trimestre en moderación. No obstante, al contrario de los que ha ocurrido en numerosas economías industrializadas, este proceso parece atemperarse paulatinamente, puesto que el segundo trimestre el crecimiento del PIB alcanzó el 3,3%, solo cuatro décimas inferior al del primero. Se puede ver en el cuadro adjunto que ese trimestre inicial perdió seis décimas sobre un trimestre, que ya se había desacelerado en siete décimas de punto, posterior al que restó otras ocho décimas a la variación del PIB. De esa manera, hay que situarse en los inicios del 2000 para poder encontrar el origen de la etapa de menor actividad económica en la economía vasca.

Este proceso ha sido todavía más evidente en la demanda interna, que prácticamente se ha estabilizado en el primer semestre. Una lectura optimista de este hecho permitiría adelantar el logro de un valle en el comportamiento de la economía vasca, paso previo y necesario para una ansiada recuperación en los meses siguientes, que dependería de la existente en el entorno económico. Sin embargo, se debe reiterar que el momento internacional abre serias dudas en cuanto a una pronta materialización de esa tendencia a la estabilidad en una firme revitalización, ya no solo en los meses finales del año sino en el año 2002.

Una vez más, conviene recordar las oportunas cautelas metodológicas a la hora de interpretar las estimaciones trimestrales relativas a una economía regional. Primera, que estas apreciaciones se corresponden con una primera valoración para el semestre de la información estadística disponible, que sufre retoques según se va ampliando y que, por lo tanto y como ocurre para todas las economías que estiman sus cuadros macroeconómicos, están sometidas a modificaciones. Además se están barajando variaciones en torno a valores de décimas y, por lo tanto, se trabaja con un margen estrecho para el error. Por lo tanto, la tendencia a la estabilidad que presentan algunos indicadores deberá confirmarse en posteriores reestimaciones.

3. taula / Cuadro nº 3
BPG, enplegua eta ekoizkortasuna EAEn
PIB, empleo y productividad en el País Vasco

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasa de variación interanual

	1999	2000	2000				2001		
	batez b Media	batez b Media	I hiru I trim	II hiru II trim	III hiru III trim	IV hiru IV trim	I hiru I trim	II hiru II trim	
BPG erreala	5,2	5,3	5,9	5,8	5,0	4,3	3,7	3,3	PIB real
Enplegua (*)	4,5	3,8							Empleo (*)
Itxurazko ekoizkortasun.	0,7	1,5							Productividad aparente
Langabezi tasa	15,5	13,7	14,8	13,9	13,6	12,4	12,2	11,0	Tasa de paro
Kontsumo prezioak	2,8	3,5	3,0	3,3	3,8	3,9	3,9	4,2	Precios de consumo

(*) BJA inkestaren urteko tasa leunduan neurtuta.
Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Eustat eta INE.

(*) medido en tasas anuales suavizadas de la encuesta PRA
Fuente: Dirección de Economía y Planificación, Eustat e INE.

Hala eta guztiz ere eta ezagunak diren datuak erabilia, esan daiteke EAeko ekonomia inguruneko gainontzeko ekonomien gainetik eta modu orekatuagoan hazi dela, beste ekonomietan bigarren hiruhilekoan gertatu den atzerapena nozitu ez duelako. Esate baterako, Estatu Batuetan 1,3 puntukoa izan da, Alemanian 1,2 puntukoa, Japonian bederatzi hamarrenkoa eta, era berea, antzeko atzerapena izan duten herrialdeetan, hala nola Frantzia eta Erresuma Batuan, hazkundeak ez du %3 gainditu. Espainia da salbuespena eta moteltzea hiru hamarrenetan zenbatu da.

Con todo y sobre la base de los datos conocidos, se puede apreciar que la economía vasca ha crecido por encima de las economías de su entorno y de forma más equilibrada, ya que no ha sufrido el retroceso tan marcado del segundo trimestre en otras economías. En el caso de Estados Unidos ha sido de 1,3 puntos, para Alemania de 1,2 puntos, para Japón de nueve décimas e incluso, en los casos en los que la contracción ha sido similar, como son Francia y Reino Unido, los incrementos no han superado el 3%. En España, como excepción, la pérdida de pulso se ha cuantificado en tres décimas.

Aztertu dugun aldi horretan, prezioek goranzko bidea hartu zuten, jardueraren joera oso bestelakoa bazen ere. Petrolio gordinaren merkatuetan egon den presioa, euroaren kotizazioa dolarrarekiko eta behi eroen krisia aipatu behar dira prezioen gorakada azaltzeko. Oztopo horiek gaindituta, prezioen norabidea iraila arte ez zen gelditu, prezioak osatzeko prozesuan dauden inertziekin apurtzeko zailtasunengatik.

En el periodo analizado, la evolución de los precios ha sido alcista en contraposición a la tendencia de la actividad, por efecto de la presión en los mercados del crudo, la cotización del euro frente al dólar y la crisis de las vacas locas. Superados estos obstáculos, la espiral de precios no ha logrado frenarse hasta el mes de septiembre por la dificultad de romper la inercia en el proceso de formación de precios.

Lan merkatuari dagokionez, bai lanpostuak sortzeko unean bai langabezia gutxitzeko asmoan emaitza onak lortu ziren. Azken aldagai horretan, langabezi tasa parte hartzaileen %11ra murriztu zen eta agerian utzi du lan merkatuaren portaeran lortu den hobekuntza garbia.

En lo relativo al mercado de trabajo, el balance resultó positivo en términos de creación de empleo y contención del paro. En este último aspecto, la reducción de la tasa de paro al 11% de la población activa es la expresión más clara de la mejora en el comportamiento del mercado de laboral.

Adierazi behar da, hilabete horietan enplegua sortzeko gaitasuna ebaluatzea, era kuantitatibo batean, oso zaila izan dela, lan merkatua aztertzeko erabiltzen diren estatistika iturriek ez dutelako ibilbide homogeen bat eskaintzen landunen bilakaeran. Lan merkatuari eskaini zaion atalean arazo horren gaineko ikuspegi zabalagoa deskribatu da.

BPG osatzen duten aldagaien portaera zehatzago adieraztean, esan behar da ekoizpenaren erritmoan gauzatu zen moteltzea industriaren eta zerbitzuen emaitza ez hain hedakorren ondorioa izan zela, eraikuntzak bizitasuna irabazi zuen bitartean.

Eskariaren aldetik, bai barne eskariak bai kanpo eskariak ekarpen txikiagoa egin zioten hazkunderari. Barne eskariak hazkunde ahulagoak aurkeztu zituen, baina aipatua izan den egonkortasunerako joera batean. Hala ere, kapital eraketa gordina aurreko aldietan baino askoz gutxiago hazi zen, zeren 1999. eta 2000. urteetan inbertsioak %10aren inguruko aldakuntza tasak lortu baitzituen, eta erritmo horri epe ertainean eustea oso zaila da. Kontsumo pribatuak ez zuen gehikuntza handiegirik lortu, baina aurreko tasekiko aldea ez zen horren zabala izan, zeren familien erabakiak nahiko egonkorrak izaten baitira eta gorabeherak ez dira inbertsioan gertatzen ohi direnak bezain markatuak.

Kanpo eskariak BPGren hazkunderari egin zion ekarpena bi hamarrenekoa besterik ez zen izan. Aldi berean, esportazioek zein inportazioen oso aldakuntza tasa apalak jaso zituzten. 2000. urteko epe berean, ordea, atzerrian saldutakoak eta bertan erositakoak gehikuntza tasa garrantzitsuak lortu zituzten.

Aipatutako joeren arabera, adierazi behar da, 2001. urte osorako, EAEn merkatu nagusietako eskariaren ahultasunak eta irailaren 11ren ondotik oro har sortu den egongaitzasunak ilundu egin dituztela zenbait adierazlek EAeko ekonomiarentzat aurreratzen egon zitezkeen baikortasuna eta bigarren seihilekoan hazkunde tasak areagotzea ezin da espero. Zehazkiago esanda, 2001. urtean, barne produktu gordina %3,2 haziko dela espero da, beraz, 2000. urtean lortu zuen %5,3ko tasa altutik bi puntu luze azpitik geratuko da.

2002. urterako, jardueraren moteltze etengabearekin bat eta nazioarteko erakunde nagusien oraingo aurreikuspenak erabat aldatzen ez badira, hazkunde tasa %3ra jaitsiko da eta hurrengo urteetan zenbateko horren inguruko hazkunde tasan jarraituko da.

Destacar que la valoración, de forma cuantitativa, de la capacidad de generación de empleo durante esos meses ha resultado muy complicada, debido a la opacidad de las distintas fuentes estadísticas para ofrecer un panorama mínimamente homogéneo de la trayectoria de la ocupación. Una visión más detallada de este problema se describe en el apartado correspondiente al mercado de trabajo.

Procediendo a detallar el comportamiento de los diversos componentes del PIB, decir que la pérdida de ritmo productivo provino de los resultados menos expansivos de la industria y de los servicios, mientras que la construcción pareció ganar impulso.

Por el lado de la demanda, tanto la demanda interna como la externa aportaron menos al crecimiento. La demanda interna presentó crecimientos más débiles, aunque con la tendencia comentada a la estabilización. Sin embargo, la formación bruta de capital mostró una desviación abultada respecto de los incrementos anteriores, ya que la inversión adoptó variaciones en torno al 10% en los años 1999 y 2000 que, difícilmente, pueden sostenerse a medio plazo. El consumo privado no fue tan dinámico, pero no presentó un diferencial tan acusado con las cifras anteriores, puesto que las decisiones de las economías domésticas se mueven con oscilaciones muy poco bruscas, frente a los ciclos explosivos de la inversión.

Por su parte, la contribución de la demanda externa al crecimiento del PIB apenas representó dos décimas, correspondiéndose con variaciones muy moderadas tanto de la exportación como de la importación. En igual periodo de 2000, los montantes de ventas y compras al extranjero lograron aumentos significativos.

En función de las tendencias mencionadas, comentar que, para el conjunto del año 2001, la debilidad de la demanda de los principales mercados vascos y la inestabilidad generada tras el 11 de septiembre ensombrecen los augurios de signo optimista que algunos indicadores podrían estar adelantando para la economía vasca, que no lograría en el segundo semestre recuperar sus tasas de crecimiento. Más concretamente, en el año 2001, el incremento esperable del PIB sería del 3,2%, más de dos puntos por debajo de la elevada tasa del 5,3% de 2000.

Para el año 2002, en línea con el paulatino deterioro de la actividad y si no se produce un cambio radical de las previsiones actuales de los principales organismos internacionales, el porcentaje descenderá al 3%, tras el cual disminuiría en una senda de crecimiento sostenido en torno a esa cifra.

Ekoizteko erritmo horrek enplegu sorrera neurrizkoa eta iraunkorra ahalbidetuko luke, 2001. urteko hazkunde tasa %1,8an eta hurrengo urteetan %1,3aren inguruan kokatuko zelararik. Horri esker, langabezi tasa parte hartzaileen %8ra murriztuko da 2005. urtean.

Ese ritmo productivo permitiría una creación moderada y duradera de empleo con una tasa de crecimiento del 1,8% en el año 2001, que continuará en una senda alrededor del 1,3%, que permitirá situar la tasa de paro en el 8% de la población activa en el horizonte del año 2005.


Ekoizpen arloak

Barne produktu gordinak ahultzeko joera erakutsi zuen 2001. urteko lehen seihilekoan, industriak eta zerbitzuek izan zituzten gehikuntza apalagoen ondorioz, eraikuntza bizkortu zen bitartean. Industria, zenbait ekitalditan aldakuntza erreal oso indartsuak lortu ondoren, ekoizpen zikloa apaltzeko fase batean murgildu zen, baina oraindik ekonomiaren guztizkoak lortu dituenak bezalako hazkunde tasak jaso ditu. Industriari lotuta dauden zerbitzuek izan duten bizitasun galeraren ondorioz, zerbitzu jarduerak oro har hazkunde motelagoa jaso dute, baina tasen jaitsiera leunagoa izan da.

Sectores productivos

El producto interior bruto presentó un debilitamiento en el primer semestre de 2001, debido a los incrementos menos intensos de la industria y los servicios frente a la reactivación de la construcción. La industria, tras unos ejercicios con tasas de variación reales muy fuertes, se sumergió en una fase de desaceleración de su ciclo productivo, a pesar de lo que sigue creciendo en porcentajes similares a los de la economía en conjunto. En línea con la consecuente pérdida de dinamismo de los servicios conectados a la industria, el global de las actividades de servicios también tiende a una menor expansión, aunque de manera más pausada.

4. irudi / Gráfico nº 4 Industriaren ziklo bilakaera Evolución cíclica de la industria



Iturria: *Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.*
Fuente: *Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos de Eustat.*

2001. urteko lehen seihilekoan, industriak 2000. urtean zehar izan zuen apaltzeko joerari jarraipena eman zion, industri produkzioaren indizearen urteko tasa leunduaren bilakaera erakusten duen irudian ikus daitekeenez. Deskribatu duen zikloak aurreko biak baino txikiagoa izan da, bai iraupenari dagokionez bai intentsitateari dagokionez.

Durante el primer semestre de 2001, la industria continuó dentro de la tendencia a la desaceleración con la que discurrió a lo largo del año 2000, como se aprecia en el gráfico de evolución de la tasa anual suavizada del IPI. El ciclo que ha descrito ha tenido menor magnitud que los dos anteriores, tanto en su prolongación en el tiempo como, lógicamente, en su intensidad.

Industriaren ekoizpen erritmoa moteldu izana arloaren atal guztietan nabaritu da eta ekonomia industrializatu gehienetan bizi denarekin bat etorri da. Izan ere, EAEko industriak beste herrialde batzuetakoak hornitzen ditu, bereziki bitarteko ekoizkinekin eta ekipamendurako ondasunekin.

La atenuación del ritmo productivo de la industria se ha dejado sentir en todos sus subsectores y ha resultado coincidente con la vivida en la mayoría de las economías industrializadas, ya que la industria vasca se encarga de nutrir a otras, principalmente de productos intermedios y bienes de equipo.

4. taula / Cuadro nº 4 Eskaintzaren aldetiko adierazleak Indicadores por el lado de la oferta

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	2000 III hiru III trim	2000 IV hiru IV trim	2001 I hiru I trim	2001 II hiru II trim	
Industri produkzioaren indizea. (*)	5,5	3,5	0,7	-0,4	Índice producción industrial (*)
IPI bitarteko ondasunak (*)	7,4	5,0	2,0	0,9	IPI bienes intermedios(*)
Ekoizteko ahalmenaren erabil.%a (**)	81,7	80,5	76,7	79,3	% utiliz. capacidad produc. (**)
Eskari zorroa (**)	5,7	-2,3	-17,3	-6,3	Cartera de pedidos (**)
Bukatutako ekoizkinekin stockak (**)	1,3	8,0	19,3	19,3	Stocks productos terminados (**)
Ekoizpenaren joera (**)	21,0	11,0	1,0	14,0	Tendencia de la producción (**)
Ekoizpenaren balioa eraikuntzan	16,4	21,2	12,0	—	Valor de la produc. construcción
Lizitazio ofiziala	42,8	263,3	1,2	—	Licitación oficial
Zementuaren itxurazko kontsumoa (*)	6,0	7,3	7,8	9,2	Consumo aparente cemento (*)
Eraikuntzaren kostuen indizea	3,6	3,8	4,5	4,3	Índice de costes de construcción
Hegazkin bidezko bidaiariak	10,0	7,0	3,4	0,0	Pasajeros tráfico aéreo
Hoteletan igarotako gaualdiak (*)	-2,7	-4,4	-5,7	-5,9	Pernoctaciones hoteleras (*)
Barne merkata. indizea (p. iraunk.)(*)	2,3	2,8	3,1	3,7	Índice comercio int. (p. cons.)(*)

(*) Urteko tasa leunduan neurtuta.

(**) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako balioen arteko aldea).

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Zientzia eta Teknologia Ministerio, Seopan, Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusi, Oficemen, Bilboko Portu eta Pasaiaiko Portuaren datuetan oinarrituta.

(*) Medidos en tasas anuales suavizadas.

(**) Saldo neto de respuestas empresariales (diferencia de valores extremos).

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos de Eustat, Ministerio de Ciencia y Tecnología, Seopan, D.G. Aviación Civil, Oficemen, Puerto de Bilbao y Puerto de Pasaia.

Hala eta guztiz ere, IPIren azken datuak ikusita eta oraingo zenbatekoek aldaketa handirik ez badute, aurreko hilabeteetan gertatu zen bezala, 2001. urteko bigarren erdian inflexio gunea lortuko dela aurreikus daiteke. Aurreikuspen horren oinarrian merkatuaren oraingo parametroak mantenduko direlako ustea dago, iritzien gaineko inkestetan enpresek iradoki zuten baikortasun handiagoan oinarrituta, eta igurikapenetan ez zen krisi larriarik agertuko, ekonomi aztertzaileek une hauetan osatu duten ordezeko eszenario negatiboenean gertatuko zen bezala.

Bestelako egoeran, eraikuntzak bere jarduera areagotu zuen, aurreko urteko bigarren seihilekoan makalaldi txiki bat pairatu ostean, eta urte hartako batez bestean %7,4tik gorako aldakuntza jaso ondoren. Hala eraikinen atalak nola obra zibilak hazkunde garrantzitsuak lortu zituzten.

Zerbitzuak, berriz, zertxobait apaldu ziren. Industriari lotutako zerbitzuek kontsumoari lotutakoek baino gehiago nabaritu zuten ekonomiaren motelaldia. Merkataritzak emaitza positiboak aurkeztu zituen eta turismoarekin lotura duten adierazleek aurreko urteko beheraldia gainditzen ari dela adierazten hasi dira.

No obstante, a tenor de los últimos datos del IPI y si no sufre revisiones ostensibles en las cifras conocidas, como ha ocurrido en los meses precedentes, se puede augurar el logro de un valle en la segunda mitad del año 2001. Esta predicción estaría basada en un mantenimiento de los parámetros actuales del mercado, en función del mayor optimismo que las empresas dejaban entrever en las encuestas opináticas, sin una crisis importante de las expectativas que supondría el escenario alternativo más negativo entre los que ahora elaboran los analistas económicos.

En la posición contraria, el sector de la construcción revitalizó su actividad, tras un pequeño bache en el segundo semestre del año anterior, en variaciones porcentuales por encima del 7,4% de media de ese año. Tanto el apartado de edificación como el de obra civil lograron importantes crecimientos.

Por su parte, los servicios se desaceleran moderadamente. Los servicios conectados con la industria se resentirían de forma más importante que los conectados al consumo. El comercio presentó unos resultados positivos y los indicadores relacionados con el turismo podrían señalar la superación del bache del ejercicio anterior.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

ESKARIA

DEMANDA

Barne produktu gordinarekin gertatu den bezala, eskariaren osagaiak ere moteldu egin dira 2001. urteko lehen sei hilekoan. Barne eskaria %3,3 hazi zen, beraz, 2000. urtean zehar lortutako %4tik gorako aldakuntzen oso azpitik kokatu zen. Era berean, kanpo eskariaren ekarpena 2000. urteko batez bestean sei hamarrenekoa izan zen bitartean, aurtengo lehen sei hilabeteetan bi hamarrenera murriztu da. Aurrekoaz gain, bi osagaietan bigarren hiruhilabeteko bilakaera lehenengokoa baino zertxobait apalagoa izan zen, gertatu ziren gorabeherak oso garrantzitsuak ez baziren ere.

Barne eskariak %3,3ko gehikuntza erreala jaso zuen bigarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago, baina aurreko urteko hiruhileko beraren aldean puntu bat eta erdi baino gehiago moteldu da hazkundera. Barne eskaria osatzen duten bi atalek nolabaiteko ahultasuna erakutsi zuten aurreko ekitaldiaren aldean, arina kontsumoari dagokionez eta garrantzitsua inbertsioaren kasuan. Hala ere, azken hiruhilekoan egonkortasunerako joera hauteman da. Kontsumo pribatuari dagokionez, egonkortasunerako joera hori indarra astiro baina etengabe galtzearen ondorioa da, izaten ohi duen portaera leunagoarekin bat eginez. Inbertsioak, ordea, erritmo aldaketa handiak izaten ohi ditu eta egonkortzeko joera ekipamendurako ondasunen inportazioaren datuak aztertzean hauteman da, gorakada izan baitu eta beste adierazleak orekatu baititu. Gertakari hori zaindu beharko da datozen hilabeteetan, salbuespenekoa izan den edo inbertsioaren balizko susperraldia den egiaztatzeko. Azken hau zailagoa izango da, plazaratu diren aurreikuspenen baldintzek bestelakoa iradokitzen baitute.

Zehatzago adierazita, kontsumo pribatuaren ibilbidea familien errenta erabilgarriaren mantentzearen ondorioa da, soldatak zertxobait igo direlako eta enpleguak emaitza ona izan duelako, inflazioak gora egin duen arren. Era berean, arlo publikoak pentsioen bidez egiten dituen transferentziak bere horretan geratu ziren, zeren igoera nominal handiagoak prezioen gorakadak berdindu baitzituen. Aitzitik, finantza aktiboen errentagarritasuna jaitsi denez, finantza aberastasuna gutxitu da, familien aberastasuna kaltetuz.

Aurrekoaren ondorioz, kontsumo ondasunetan eginiko gastuaren adierazleak erritmo positibotan jarraitu dira. Kontsumoko ondasunen ekoizpena gutxitu bazen ere, merkataritzako salmentak, eta euren artean txikizkako merkataritzako salmentak, zertxobait areagotu ziren eta autoen matrikulazioek aurreko hilabeteetako jaitziera sakona leundu dute.

Al igual que ha ocurrido con el producto interior bruto, los componentes de la demanda se han desacelerado durante el primer semestre de 2001. La demanda interna creció un 3,3%, bastante inferior a las variaciones por encima del 4% logradas a lo largo del año 2000, de la misma manera que la aportación de la demanda externa pasó de las seis décimas de la media del año 2000 a las dos décimas de los seis primeros meses. Además, en ambos casos, la evolución del segundo trimestre resultó algo menos dinámica que la del primero, aunque sin oscilaciones relevantes.

La demanda interna presentó un incremento real del 3,3% en el segundo trimestre, solo una décima inferior al del anterior, pero más de un punto y medio por debajo de igual trimestre del año precedente. Los dos apartados en los que se desagrega mostraron un debilitamiento frente a las cifras del ejercicio anterior, leve para el caso del consumo e importante para la inversión, que, sin embargo, ha tendido a estabilizarse en el último trimestre. En el caso del consumo privado esta estabilización obedece a una lenta y progresiva pérdida de pulso, propia de su comportamiento más atemperado, y en el caso de la inversión, con habituales cambios de ritmo, se basa en el análisis de los datos de importación de bienes de equipo, que registra un repunte singular y compensa a otros indicadores. Este hecho deberá vigilarse durante los próximos meses para comprobar la excepcionalidad de esa mejoría o una posible revitalización inversora, circunstancia menos plausible a tenor de los condicionantes de las perspectivas existentes.

Más detalladamente, la trayectoria del consumo privado estaría respondiendo al mantenimiento de la renta familiar disponible por un pequeño aumento de los salarios y los buenos resultados del empleo, frente al repunte de la inflación. De la misma forma, las transferencias del sector público vía pensiones se estabilizaron, ya que las mayores subidas nominales se diluyeron con el repunte de precios. Por el contrario, la riqueza de las familias se vio afectada por la caída de la riqueza financiera ante la bajada de la rentabilidad de los activos financieros.

Como consecuencia, los indicadores de gasto efectivo de bienes de consumo se sostienen en ritmos positivos. Aun cuando la producción de bienes de consumo cayó, las ventas del comercio y, entre ellas, las ventas del comercio minorista se aceleraron ligeramente, mientras que las matriculaciones de turismo frenan su intenso descenso de los meses anteriores.

Hurrengo hilabetei begira, kontsumo tasak mantentzeko joera hori oso lagungarria izango zen eskariari ekoizpenaren azken fasean eusteko, baina irailaren 11ko gertakarien ostean hedatu den ziurgabetasuneko egoerak erabat baldintzatzen ditu familien gastu erabakiak. Hain zuzen ere, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak egiten duen kontsumitzailearen konfiantza adierazleak nabarmen egin du behera hirugarren hiruhilekoan, erosteko aurreikuspenak eta ekonomiaren egoeraz zuten iritzia berrikusi dituztelarik.

De cara a los próximos meses, esta tendencia de mantenimiento de las tasas de consumo resultaría muy favorable para asegurar el sostenimiento de la demanda en la fase final de la producción, pero el escenario de incertidumbre tras los acontecimientos del 11 de septiembre condiciona en extremo las decisiones de gasto familiar, así en el tercer trimestre el índice de confianza del consumidor, elaborado por la Federación de Cajas de Ahorro Vasco-Navarra, ha descendido claramente, revisando las perspectivas de compra y la percepción que estos tenían de la situación económica.

5. taula / Cuadro nº 5 Barne eskariaren adierazleak Indicadores de demanda interna

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasa de variación interanual

	2000eko III hir. III trim. 2000	2000eko IV hir. IV trim. 2000	2001eko I hir. I trim. 2001	2001eko II hir. II trim. 2001	
Lan etekinengatiko atxikipenak	5,9	4,3	5,0	9,3	Retenciones rendimientos trabaj.
Pentsioen kopurua	1,2	1,2	1,3	1,6	Número de pensiones
Batez besteko pentsioa	5,0	5,0	5,8	5,8	Pensión media
IPI kontsumo ondasunak (*)	6,5	4,3	0,5	-0,2	IPI Bienes de consumo (*)
BMI txikizkak. (pzta. iraunkor.) (*)	0,8	1,6	2,0	2,4	ICI minorista (p. constantes) (*)
Autoen matrikulazioa (*)	-7,2	-10,7	-9,0	-4,1	Matriculación de turismos (*)
IPI ekipo ondasunak (*)	2,0	1,0	-1,6	-0,7	IPI bienes de equipo (*)
Ekipo ondasunen esportazioak	12,0	18,4	-3,4	-0,2	Exportación bienes de equipo
Ekipo ondasunen inportaz. (**)	10,0	19,7	10,1	20,8	Import. bienes de equipo (**)
Zamaketa. ibilgailuen matriku. (*)	-7,0	-11,4	-11,4	-9,5	Matriculac. vehículos carga (*)

(*) Urteko tasa leunduan neurtuta.

(**) Autoak kontuan hartu gabe.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Ogasun eta Herri Administrazio Saila, Trafikoko Zuzendaritza Nagusi eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

(*) Medidos en tasas anuales suavizadas.

(**) Sin incluir turismos

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos de Eustat, Dpto. de Hacienda y Administración Pública, Dirección General de Tráfico, y Tesorería General de la Seguridad Social.

Inbertsioari dagokionez, jaitsiera nabarmena jaso da Eustatek 2000. urterako estimatu zituen %10etik gorako tasa altuen aldean, baina bigarren hiruhilekoan nolabaiteko hobekuntza hauteman da inbertsioaren bilakaeran. Hain zuzen ere, eraikuntzari zuzendutako kapital eraketa gordinak 2000. urtearen amaierako aldakuntza tasa bera izan du eta ekipamendurako ondasunetara bideratutako kapital eraketa gordina, aurreko urteko bizitasunetik oso urrun egon arren, neurrizko zenbatekotan egonkortu da.

Aipatua izan denez, ekipamenduan eginiko inbertsioak aldaketa garrantzitsuak izan ditu aurreko hiruhilekoetan, ekipamendurako ondasunen baliakizunetan oinarrituta. Adierazle hori ekoizpenak, inportazioak eta esportazioak osatzen dute. Aurreko aldietan, antzeko ibilbidea erakutsia zuten, baina azken hiruhilekoan inportazioa gainontzeko bi aldagaien ibilbidetik aldendu da.

Hasiera batean, suspertzeko inbertsioan eskari handia dagoela pentsaraz dezake, baina seguruena inportazioaren ezhohiko datu bat besterik ez izatea da. Izan ere, lehenago espero ziren eszenario apaletan zein gaur egun iragartzen diren atzeraldiko eszenarioetan, inbertsioak ez du gauzatzeko inolako erraztasunik aurkituko.

Kanpo eskariaren osagaia aztertuta, esan daiteke 2001. urteko lehen sei hilekoan kanpo saldoak barne produktu gordinaren hazkundeari bi hamarreneko ekarpena egin diola. Beraz, 2000. urteko bigarren sei hilekoaren ekarpena lau hamarrenetan gutxitu da. Emaitza horrekin, aurreko urteko bigarren hiruhilekoan hasi zen gero eta ekarpen txikiagoak egiteko joera baieztatuta geratu da.

Hala eta guztiz ere, eta 2000. urtean ez bezala, emaitza hori atzerriarekiko esportazioen eta inportazioen portaera apalagoaren ondorioa izan da. Hain zuzen ere, 2000. urteko lehen sei hilekoan atzerrira zuzendutako esportazioak guztira %15,2 gehitu ziren bitartean, 2001. urteko lehen sei hilekoan igoera %2,3 besterik ez zen izan. Beste aldetik, 2000. urteko lehen sei hilekoan atzerritik ekarritako inportazioak guztira %39,4 areagotu ziren (energiako ekoizkinen prezioak %123,8 garestitu ziren) eta 2001. urteko lehen sei hilekoan %7,3. Aurreko guztiaren ondorioz, atzerriarekiko saldo nominala 2000ko lehen sei hilekoan 1.144 milioi eurotik gorakoa izan zen (190.000 milioi pezetatik gora), hurrengo urteko lehen sei hilekoan ia 936 milioi eurokoa (155.000 milioi pezeta) izan zen bitartean.

En lo que respecta a la inversión, se produce un fuerte descenso del comportamiento inversor respecto de las elevadas tasas que Eustat calcula para el año 2000 y que superaban el 10%, si bien se aprecia un sostenimiento de la evolución inversora en el segundo trimestre. De hecho, la formación bruta de capital destinada a la construcción repite las variaciones con las que cerró el año 2000, y la formación bruta de capital destinada a bienes de equipo, aunque se aleja del gran dinamismo precedente, se consolida en cifras moderadas.

Como ya se menciona, la inversión en equipo ha arrastrado importantes variaciones en anteriores trimestres, basada en el nivel de las disponibilidades de bienes de equipo, indicador compuesto de producción, importación y exportación. En periodos anteriores, habían mostrado un movimiento más parejo, mientras que en el último trimestre, la importación difiere de la trayectoria de los otros factores.

En principio, debería señalar una fuerte demanda de inversión en revitalización, pero lo más probable es que sea un dato atípico de la serie de importación. Tanto con los escenarios moderados esperados anteriormente como dentro de un escenario en retroceso como los vaticinados en la actualidad, la inversión no va a encontrar el momento adecuado para materializarse.

Pasando a analizar el componente de demanda externa, se puede afirmar que, durante el primer semestre de 2001, la contribución estimada del saldo exterior al crecimiento del PIB se situó en dos décimas porcentuales, rebajándose así en cuatro décimas la aportación registrada en el segundo semestre de 2000. Con este resultado se confirmó la senda de menores aportaciones iniciada a partir del segundo trimestre del año precedente.

No obstante, y a diferencia de lo ocurrido durante 2000, este resultado se derivó de un comportamiento mucho más moderado en exportaciones e importaciones con el extranjero. Así, mientras que en el primer semestre de 2000 las exportaciones totales al extranjero aumentaron un 15,2%, en el primer semestre de 2001 el aumento fue sólo del 2,3%. Por su parte, las importaciones totales del extranjero realizadas en el primer semestre de 2000 alcanzaron un 39,4% de aumento (con un incremento en el precio de los productos energéticos del 123,8%) frente al 7,3% del primer semestre de 2001. Como consecuencia de todo ello, el saldo nominal con el extranjero del primer semestre de 2000 fue de más de 1.144 millones de euros (más de 190.000 millones de pesetas) frente a los casi 936 millones de euros (más de 155.000 millones de pesetas) del primer semestre posterior.

Alde horren arrazoa EAEk atzeriarekin izandako salerosketek munduko merkataritzak 2000. urtean izan zuen bilakaera ona (%13,1eko igoera) lortzea da, baina azken hilabeteetan gutxiago hazteko joera nagusitu da. Antza denez, joera hori 2001. urteko lehen seihilekoan areagotu zen. Hala ere, azken aldi horretan, EAEko esportazioetan, gero zehaztuko denez, apaltzeko joera hori Estatuko esportazioetan baino gehiago nabaritu da. Neurri handi batean, EAEko esportazioetan garrantzia handia duten enpresa zenbaitek ekoizpena berrantolatze eta salmentak Estatura bideratzeko egin duten prozesuaren ondorioa da aurreko bilakaera ezberdina.

Estatuko gainontzeko lurraldeekin egiten diren salerosketei dagokienaz, eskura dauden datuek salmenten aurreikuspenak 2000. urteko amaieran okertu zirela erakutsi dute. Portaera hori bera 2001. urteko lehen seihilekoan ere jarraitu da. Beste aldetik, EAEko industriaren jardura eta barne eskaria apaldu izanak merkatu horretatik inportazio gutxiago ekartzeko beharra eragin zuen.

Atzerriarekiko salerosketak ekoizkinen arabera aztertuta, 2001. urteko lehen seihilekoan, EAEko esportazioaren bi osagai handienek, hots, metalak eta beren manufakturak eta ekipamendurako ondasunak, gehikuntza txikiak (%2,9) eta jaitsiera txikiak (%-1,7) izan zituzten, hurrenez hurren. Gainontzeko atalek, ordea, bizitasun handia jaso zuten, salbuespen bakarra ekoizkin kimikoak (%-9,1) izan zirelarik. Aitzitik, atzeritik ekarritako inportazioetan, aipatu ditugun osagai handien portaera biziagoa izan zen. Hain zuzen ere, metalak eta beren manufakturak ataleko inportazioak %11,3 gehitu ziren eta ekipamendurako ondasunak, berriz, %4,3.

Geografi gunearen arabera, esportazioen hazkunde bizienak OCDE erakundean parte hartzen ez duten herrialdeetan gertatu ziren (%13,1), OCDEko eremura bideratutakoak egonkor mantendu ziren bitartean (%0,1). Eremu horren barnean, Europar Batasunera zuzendutakoak bilakaera hobea izan zuten, bereziki Frantziara (%12,0) eta Erresuma Batura (%13,8) bidalitakoak, Alemanian saldutakoak behera egin zuen bitartean (%-11,2). Beste aldetik, gehien areagotu ziren inportazioak OCDEko eremukoak izan ziren (%13,4), Europar Batasunekoak (%10,0) baino zertxobait gehiago hazi zirelarik.

Seihilekoaren barnean, atzerrira zuzendutako esportazioen bilakaera oso antzekoa izan zen lehenengoan (%1,6) eta bigarrenean (%2,9). Inportazioetan, ordea, ez zen horrelakorik gertatu eta lehen hiruhilekoan hazkunde txikia (%2,1) jaso zen bitartean, bigarrenean hobekuntza nabarmena lortu zen (%12,2).

Este diferencial se debe a que los flujos vascos con el extranjero siguieron las pautas favorables que describió el comercio mundial (13,1% de aumento) en 2000, con una fase de menores crecimientos en los últimos meses, tendencia que, al parecer, se reforzó durante el primer semestre de 2001. Sin embargo, durante este último período, en las exportaciones vascas, tal y como se detallará más adelante, esa desaceleración fue más intensa que para el conjunto del Estado, siendo en buena medida la consecuencia de procesos de reorganización de la producción y de orientación hacia el mercado del resto del Estado operados en industrias vascas de gran peso en las exportaciones totales.

Respecto a los intercambios con el resto del Estado, los datos disponibles mostraron un empeoramiento de las perspectivas de ventas hacia finales de 2000, comportamiento que se extendió al primer semestre de 2001, mientras que la atenuación de la actividad industrial y la demanda interna vasca supusieron menores requerimientos de importaciones procedentes de este mercado.

En el análisis por productos de los intercambios con el extranjero habidos en el primer semestre de 2001, los dos grandes componentes de la exportación vasca, esto es, metales y sus manufacturas y bienes de equipo, registraron ligeros incrementos (2,9%) y ligeras contracciones (-1,7%) respectivamente, contrastando con la vitalidad del resto de rúbricas a excepción de los productos químicos (-9,1%). Por el contrario, en las importaciones del extranjero, el comportamiento de los citados grandes componentes fue más dinámico, registrándose un aumento del 11,3% en metales y sus manufacturas y del 4,3% en bienes de equipo.

Por áreas geográficas, las exportaciones más dinámicas se dirigieron a los países no miembros de la OCDE (13,1%), mientras que las dirigidas al área OCDE se mantuvieron estables (0,1%), siendo un poco más dinámica la UE (2,7%), en especial Francia (12,0%) y Reino Unido (13,8%) frente a la caída de las dirigidas a Alemania (-11,2%). Por su parte, las importaciones que más crecieron fueron las procedentes del área OCDE (13,4%), ligeramente superiores a las de la UE (10,0%).

Dentro del semestre, la evolución de las exportaciones al extranjero fue muy similar en el primero (1,6%) y segundo trimestre (2,9%), circunstancia que no sucedió en el caso de las importaciones, por cuanto que al escaso crecimiento del primer trimestre (2,1%) le siguió un repunte en el segundo (12,2%).

Analisis aurtengo bigarren hiruhilekora mugatzen bada, kanpo saldoak EAEko barne produktu gordinari eginiko ekarpena hamarren bakarrekoa izan zela estimatu da. Beraz, iazko erdialdean hasitako ekarpenak gutxitzeko joera jarraitu da aldi horretan. Eraitza hori eta lehenago aipatu den hiruhilabetekako joera kontuan hartuta, gero eta garbiago ikusten da barne eskaria EAEko ekonomiaren bultzagile nagusiaren papera betetzera pasatzen ari dela.

Kanpo saldoaren ekarpen txikiagoaren arrazoia atzerrira bidalitako esportazioen portaera ez hain positiboan datza (%2,9), bereziki merkatu horretatik ekarritako inportazioen bilakaerarekin alderatzen baditugu (%12,2). Eraitza horiek, batez ere esportazioen alorrean, munduko merkataritza, 2000. urteko gorakada nabarmenaren ostean, nozitzen ari den apaltzeko joera garrantzitsua baieztatzen dute eta garatutako ekonomia nagusiek (Estatu Batuek, Europar Batasunak eta Japoniak) erakutsi duten ahultasunaren ondorio garbia da.

Hala eta guztiz ere, adierazi behar da EAEko ekonomiak atzerrira esportatzeko erakutsi zuen ahalmenik eza Estatuarena (%7,4ko gehikuntza) baino handiagoa izan zela bigarren hiruhilabetez jarraian. Une honetan adierazi behar da automobilgintzaren eta ontzigitzaren alorrean, hurrenez hurren, puntakoak diren EAEko enpresa batzuek ekoizpen jarduera berrantolatzeke eta barne merkatura birbideratzeko egin dituzten ahaleginek esportazioen eraitza eskas hori areagotu dutela. Beraz, datu gordinetik ezin da ondorioztatu munduko testuinguruak eragin bereziki negatiboa izan duela EAEko ekonomian, helburu merkatua den aldetik, Estatuko batez bestean gertatu dena baino haratago doana.

EAEtik atzerrira zuzendutako esportazioak guztira %2,9 hazi ziren (urteko lehen hiruhilekoan baino puntu bat besterik ez gehiago, alegia), 2000. urteko erritmo altuetatik oso urrun, nolana ere. Inportazioen atalean, ordea, hazkundera %12,2ra iritsi zen, lehen hiruhilabeteko %2,1aren aldean. Hala ere, 2000. urtean zehar aldagai horrek lortu zuen bizitasunaren zati bat besterik ez du berreskuratu datu horrek. Estatuarekiko salerosketek dagokienez, eskura dauden adierazleek erritmoak apaltzeko joerari eutsi diote bi norabideetan, zeren hazkunde erritmo txikiagoak Estatuko zein EAEko barne eskarian (hala kontsumo pribatuan nola inbertsioan) eta industri jardueran nabarmendu beharreko ezaugarria izan baita.

Kanpoko merkatuetan apaltzeko joera nabarmena gertatzen ari zela dagoeneko urteko lehen hiruhilekoan EAEko enpresek eskari zorroari buruz eman zituzten iritzietan agerian geratu zen. Hala ere, bigarren hiruhilabeteari buruzko datuek moteltzeko joera horretan nolabaiteko leuntzea gertatu dela erakutsi dute, bereziki atzerriaren esparruan.

Centrando ahora el análisis en el segundo trimestre de este año, la aportación estimada del saldo exterior al aumento del PIB vasco fue de escasamente una décima de punto porcentual, continuándose así la fase de menores contribuciones iniciada a mediados del pasado año. Con este resultado puntual y con la tendencia trimestral señalada, queda de manifiesto que la demanda interna está pasando a ocupar, de un modo cada vez más nítido, el papel de principal dinamizador de la economía vasca.

La menor contribución del saldo exterior se asienta en un comportamiento menos positivo de las exportaciones al extranjero (2,9%) en relación con las importaciones procedentes del mismo mercado (12,2%). Estos resultados, sobre todo en el aspecto exportador, vienen a corroborar el proceso de desaceleración importante en que se halla inmerso el comercio mundial después del repunte intenso del año 2000 y que es consecuencia del debilitamiento mostrado por las principales economías desarrolladas (Estados Unidos, Unión Europea y Japón).

No obstante, conviene señalar que la atonía exportadora al extranjero por parte de la economía vasca fue sustancialmente más intensa que la del conjunto del Estado (incremento del 7,4%) por segundo trimestre consecutivo. En este punto, es preciso significar que los procesos de reorganización de la actividad productiva y de reorientación hacia el mercado interior llevados a cabo por empresas vascas líderes en sectores del automóvil y de fabricación de barcos, respectivamente, han contribuido a amplificar ese escaso resultado en exportaciones y, por lo tanto, no cabe deducir del dato bruto una especial incidencia negativa del contexto mundial sobre la economía vasca en cuanto mercado de destino más allá de lo acaecido para la media estatal.

El crecimiento de las exportaciones totales vascas al extranjero se situó en el 2,9% (poco más de un punto superior al del primer trimestre del año), muy alejado en cualquier caso de los elevados ritmos de 2000, mientras que en el apartado importador el crecimiento fue del 12,2% frente al 2,1% del primer trimestre, recuperando sólo en parte el fuerte empuje que tuvo esta variable a lo largo de 2000. Por lo que respecta a los intercambios con el resto del Estado, los indicadores disponibles siguieron mostrando una tendencia hacia la moderación de ritmos en ambas direcciones, toda vez que los menores ritmos de crecimiento han sido la tónica dominante en la demanda interna (tanto consumo privado como inversión) y la actividad industrial estatales y vascas.

La percepción de un proceso de importante desaceleración de los mercados exteriores vascos ya se reflejó de un modo intenso durante el primer trimestre del año en las opiniones sobre cartera de pedidos de las empresas vascas, aunque los datos relativos al segundo trimestre parecen mostrar una cierta atenuación, más sensible respecto al extranjero.

6. taula / Cuadro nº 6
EAEko industriaren eskari zorroa(*)
Cartera de pedidos de la industria vasca (*)

	Guztira Total	Barne merkatua Mercado Interior	Atzerria Extranjero	
1998 (batez bestea)	0	-7	2	Año 1998 (media)
I hiruhilekoa	13	-8	14	I trimestre
II hiruhilekoa	2	-1	6	II trimestre
III hiruhilekoa	5	-3	4	III trimestre
IV hiruhilekoa	-19	-10	-18	IV trimestre
1999 (batez bestea)	-25	-19	-27	Año 1999 (media)
I hiruhilekoa	-31	-27	-29	I trimestre
II hiruhilekoa	-26	-17	-28	II trimestre
III hiruhilekoa	-18	-12	-24	III trimestre
IV hiruhilekoa	-6	-5	-7	IV trimestre
2000 (batez bestea)	0	-2	-2	Año 2000 (media)
I hiruhilekoa	-7	-7	-4	I trimestre
II hiruhilekoa	3	2	-3	II trimestre
III hiruhilekoa	6	1	2	III trimestre
IV hiruhilekoa	-2	-4	-3	IV trimestre
2001 (batez bestea)	-11	-15	-11	Año 2001 (media)
I hiruhilekoa	-17	-17	-16	I trimestre
II hiruhilekoa	-6	-13	-7	II trimestre

(*) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoaren arteko aldea).

Iurria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Zientzia eta Teknologia Ministerioaren datuetan oinarrituta.

(*) Saldo neto de respuestas empresariales (diferencia entre porcentajes extremos).

Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Ministerio de Ciencia y Tecnología.

Atzerriarekiko salerosketetan, 2001. urteko bigarren hiruhilekoan, esportazioak guztira %2,9 gehitu ziren urte arteko aldakuntza tasan eta energiiaz bestelako esportazioak %2,6 areagotu ziren. Dirutan 3.155 milioi euro (525.000 milioi pezeta) eta 2.948 milioi euro (447.000 milioi pezeta) kopuruetara iritsi dira esportazioak, hurrenez hurren. Atzeritik ekarritako inportazioak, berriz, %12,2 gehitu ziren oro har eta %17,9 energiiaz bestelakoak. Hau da, 2.702 milioi euro (449.000 milioi pezetatik gora) guztira eta 2.147 milioi euro (357.000 milioi pezetatik gora) energiako ekoizkinak kontuan hartzen ez baditugu, dira inportazioen zenbatekoak. Aurreko kopuruetatik eratortzen da atzerriarekiko saldoak 453 milioi euro (75.000 milioi pezetatik gora) salerosketen guztizkoan eta 801 milioi euro (133.000 milioi pezetatik gora) energiiaz bestelakoan izan direla. Hala eta guztiz ere, zenbateko horiek 2000. urteko bigarren hiruhilekoan lortutakoetatik oso azpitik daude.

En los intercambios con el extranjero, durante el segundo trimestre de 2001, el incremento de las exportaciones totales fue del 2,9% interanual, mientras que el de las no energéticas se situó en el 2,6%, contabilizándose así casi 3.155 millones de euros (525.000 millones de pesetas) y de 2.948 millones de euros (447.000 millones de pesetas), respectivamente. En cuanto a las importaciones desde el extranjero, el aumento fue del 12,2% en las totales y del 17,9% en las no energéticas, porcentajes que sitúan lo importado en 2.702 millones de euros (más de 449.000 millones de pesetas) en el cómputo total y en 2.147 millones de euros (más de 357.000 millones de pesetas) en el subtotal no energético. De todo ello se deduce que los saldos con el extranjero se situaron en 453 millones de euros (algo más de 75.000 millones de pesetas) para los intercambios totales y 801 millones de euros (algo más de 133.000 millones de pesetas) para los no energéticos, cifras, en todo caso, muy inferiores a las logradas en el segundo trimestre de 2000.

7. taula / Cuadro nº 7
Ondasunen merkataritza atzerriarekin
Flujos de bienes con el extranjero

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	Esportazioak Exportaciones		Inportazioak Importaciones		Saldoa Saldo				
	Guztira Total	Ez energ. No eneg.	Guztira Total	Ez energ. No energ	Guztira (milioi pzta) Total (mill. pts)	Guztira (milioi euro) Total (mill euro)	Ez energ. (milioi pzta) No energ. (mill. pts)	Ez energ. (milioi euro) No energ. (mill euro)	
1998									1998
I hiruhilekoa	18,7	17,3	32,6	24,5	112.687	677,3	129.658	779,3	I trimestre
II hiruhilekoa	12,1	10,9	12,8	11,0	145.751	876,0	167.703	1.007,9	II trimestre
III hiruhilekoa	-2,0	-1,6	-2,7	10,9	101.933	612,6	117.992	709,1	III trimestre
IV hiruhilekoa	-10,8	-8,2	-8,1	-1,9	129.833	780,3	145.374	873,7	IV trimestre
1999									1999
I hiruhilekoa	0,4	2,7	-8,4	-2,7	137.762	828,0	146.577	880,9	I trimestre
II hiruhilekoa	0,7	1,7	1,2	2,5	145.333	873,5	168.693	1.013,9	II trimestre
III hiruhilekoa	5,7	4,3	18,6	10,0	73.537	442,0	108.033	649,3	III trimestre
IV hiruhilekoa	6,6	4,5	30,1	21,9	74.230	446,1	108.997	655,1	IV trimestre
2000									2000
I hiruhilekoa	17,2	15,0	48,7	25,8	80.809	485,7	142.896	858,6	I trimestre
II hiruhilekoa	13,5	9,8	31,7	13,7	109.672	659,1	175.096	1.052,3	II trimestre
III hiruhilekoa	19,5	17,9	34,9	28,8	39.985	240,3	99.341	597,1	III trimestre
IV hiruhilekoa	19,9	18,5	36,1	18,6	31.455	189,0	128.968	775,1	IV trimestre
2001									2001
I hiruhilekoa	1,6	1,7	2,1	3,0	80.290	482,6	141.265	849,0	I trimestre
II hiruhilekoa	2,9	2,6	12,2	17,9	75.431	453,3	133.324	801,3	II trimestre

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta.
Fuente: Eustat según datos del Dpto. de Aduanas e Impuestos Especiales.

Energiaz besteko esportazioetan, atalen portaera urteko lehen hiruhilekoaren oso antzekoa izan zen. Izan ere, bi osagai nagusiek, hots, metalak eta beren manufaktorek eta ekipamendurako ondasunek, berriro bilakaera kontrajarria jaso zuten. Hain zuzen ere, lehenengoen %3,3ko gehikuntza lortu zuten eta bigarrenek, ordea, %-0,2ko jaitsiera. Behin berriro, azken horien artean, alde handia egon zen batzuen eta besteen artean. Izan ere, makinak eta tresnak %16,5 gehitu ziren bitartean, garraio materiala, dagoeneko azaldu diren arrazoiengatik, %11,9 gutxitu ziren. Aurrekoan ez bezala, eta salbuespena ekoizkin kimikoak direla (%-17,5), gainontzeko atal guztiak hobekuntza garrantzitsuak lortu zituzten eta azpimarratzekoak dira nekazaritzako ekoizkinak (%21,4), papera (%18,4) eta kautxua eta plastikoa (%9,3).

En el apartado exportador no energético, los comportamientos de las diversas rúbricas fueron muy similares a lo acaecido durante el primer trimestre del año. Así, los dos grandes componentes, esto es, los metales y sus manufacturas y los bienes de equipo volvieron a repetir una evolución claramente antagónica, de tal modo que al incremento del 3,3% de los primeros se contrapuso el descenso del -0,2% de los segundos. Nuevamente, dentro de estos últimos, la divergencia fue la tónica, ya que las máquinas y aparatos aumentaron el 16,5%, mientras que el material de transporte, por los motivos ya señalados, descendieron un 11,9%. A diferencia de lo anterior, a excepción de los productos químicos (-17,5%), el resto de rúbricas volvieron a registrar importantes avances, destacando los productos agrícolas (21,4%), el papel (18,4%) y el caucho y plástico (9,3%).

Aitzitik, energiakoak ez diren inportazioek bilakaera biziagoa izan zuten, ia atal guztietan oinarritua, salbuespen bakarra papera (%-17,9) izan zelarik. Osagaien arabera, aipatu behar dira metalak eta manufakturen (%15,1) eta ekipamendurako ondasunen (%10,9) gehikuntzak. Azken atal horretan, bereziki garrantzitsua izan zen makinak eta tresnak azpiatalak lortu duen gorakada (%27,4), garraio materialaren jaitsiera (%-17,6) alde handiz gaintitu baitzuen. Azkenik, gainontzeko ataletan neurriko igoerak (%4aren inguruak) eta handiagoak ere jaso ziren.

Por el contrario, las importaciones no energéticas evolucionaron de modo dinámico apoyadas en casi la totalidad de rúbricas, con la excepción del papel (-17,9%). Por componentes, destacaron los aumentos de metales y sus manufacturas (15,1%) y bienes de equipo (10,9%), en especial las máquinas y aparatos (27,4%), que compensaron ampliamente el descenso de material de transporte (-17,6%). Por último, el resto de componentes compaginaron aumentos moderados (en el entorno del 4%) con aumentos algo más notables.

8. taula / Cuadro nº 8

Ondasunen merkataritza atzerriarekin 2001eko bigarren hiruhilekoan Comercio de bienes con el extranjero en el segundo trimestre de 2001

Neurria: milioi pezeta

Unidad: Millones de pesetas

	Esportazioak Exportaciones			Inportazioak Importaciones			
	2000	2001	ald. %a % var.	2000	2001	ald. %a % var.	
GUZTIRA	510.346	524.938	2,9	400.674	449.507	12,2	TOTAL
Energiaz bestelakoak	477.976	490.537	2,6	302.880	357.213	17,9	No energéticas
Nekazaritzakoak	16.372	19.868	21,4	29.183	30.386	4,1	Prod. Agrícolas
Kimikoak	16.229	13.395	-17,5	14.943	17.770	18,9	Química
Kautxua eta plastikoa	31.864	34.824	9,3	21.925	22.937	4,6	Caucho y plástico
Papera	16.027	18.983	18,4	12.690	10.418	-17,9	Papel
Metalak eta manufak.	118.738	122.625	3,3	88.834	102.242	15,1	Metales y manufactur.
Ekipo ondasunak	246.441	246.051	-0,2	105.032	116.494	10,9	Bienes de equipo
Makinak eta tresnak	101.762	118.568	16,5	66.621	84.859	27,4	Maq. y aparatos
Garraio materiala	144.679	127.483	-11,9	38.411	31.635	-17,6	Mat. de transporte
Beste manufakturak	27.885	30.758	10,3	30.237	54.970	81,8	Otras manufacturas
Sailkatugabeak	4.420	4.033	-8,7	36	1.997	---	No clasificados

Neurria: milioi euro

Unidad: Millones de euros

	Esportazioak Exportaciones			Inportazioak Importaciones			
	2000	2001	ald. %a % var.	2000	2001	ald. %a % var.	
GUZTIRA	3.067,2	3.154,9	2,9	2.408,1	2.701,6	12,2	TOTAL
Energiaz bestelakoak	2.872,7	2.948,2	2,6	1.820,3	2.146,9	17,9	No energéticas
Nekazaritzakoak	98,4	119,4	21,4	175,4	182,6	4,1	Prod. Agrícolas
Kimikoak	97,5	80,5	-17,5	89,8	106,8	18,9	Química
Kautxua eta plastikoa	191,5	209,3	9,3	131,8	137,9	4,6	Caucho y plástico
Papera	96,3	114,1	18,4	76,3	62,6	-17,9	Papel
Metalak eta manufakt.	713,6	737,0	3,3	533,9	614,5	15,1	Metales y manufactur.
Ekipo ondasunak	1.481,1	1478,8	-0,2	631,3	700,1	10,9	Bienes de equipo
Makinak eta tresnak	611,6	712,6	16,5	400,4	510,0	27,4	Maq. y aparatos
Garraio materiala	869,5	766,2	-11,9	230,9	190,1	-17,6	Mat. de transporte
Beste manufakturak	167,6	184,9	10,3	181,7	330,4	81,8	Otras manufacturas
Saillkatugabeak	26,6	24,2	-8,7	0,2	12,0	---	No clasificados

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Bereziatarako Sailaren datuetan oinarrituta.
Fuente: Eustat según datos del Dpto. de Aduanas e Impuestos Especiales.

Energiaz bestelako esportazioak helburu eta jatorriaren arabera aztertzen badira, portaera txarrena OCDEko eremuan egindako salmentena (%0,7) izan zen, zeren OCDEkoak ez diren herrialdeetan salmentak %13,2 areagotu baitira. Halaber, OCDEko herrialdeen artean, Europar Batasunera zuzendutakoak %8,0 gehitu ziren, Alemaniako emaitza txarrak eraginda (%-9,7), garraio materialeko esportazioa (ibilgailuak) merkatu horretara gutxitu delako. Aitzitik, Frantziako eta Erresuma Batuko merkatuetan saldutakoak nabarmen egin zuen gora, %24,1 eta %27,9, hurrenez hurren. OCDEko herrialdeen artean Europar Batasunekoak ez direnetan saldutakoa %-24,2 gutxitu zen, neurri handi batean, hiruhileko horretan itsasontzien esportazioa lurralde horretara ia hutsa izan zelako, 2000. urtean mota horretako esportazioak oso garrantzitsuak izan ziren bitartean. Azkenik, OCDEkoak ez diren herrialdeen artean, Amerika Latinora zuzendutako gorakada handia (%30,9) azpimarratu behar da, Asiako herrialde industrializatu berrietara eta munduko gainontzeko eremuetara bidalitakoak zerbait gutxitu diren bitartean.

En el análisis en función del destino y la procedencia de las exportaciones no energéticas, el peor comportamiento fue el de las ventas al área de la OCDE (0,7%) ya que el área no OCDE registró un avance del 13,2%. A su vez, dentro de la OCDE, las destinadas a la Unión Europea avanzaron un 8,0%, lastradas por el mal resultado de Alemania (-9,7%) debido a la menor exportación de material de transporte (vehículos) hacia este mercado. Por el contrario, las ventas al mercado francés y británico se incrementaron de manera notable, alcanzando un 24,1% y un 27,9%, respectivamente. Por su parte, las ventas al resto de países OCDE no incluidos en la UE descendieron un -24,2%, como consecuencia, principalmente, de la casi nula exportación de buques en este trimestre y a esta zona, frente a las fuertes exportaciones de igual producto en 2000. Finalmente, dentro del área no OCDE, destaca el fuerte aumento de las destinadas a América Latina (30,9%) frente a los descensos moderados de las dirigidas a los PARI y al resto del mundo.

Energiaz bestelako inportazioei dagokienez, OCDEko herrialdeetatik etorritakoek gehikuntza bikainak lortu zituzten, bereziki Europar Batasunetik ekarritakoak (%17,0) eta OCDEko gainontzeko herrialdeetatik heldu direnak (%66,7), Estatu Batuak (%150,2) nagusi direlarik. Aitzitik, garapen gutxiagoko herrialdeetatik inportatutakoak behera egin zuen (%-3,8).

En lo que se refiere a las importaciones no energéticas, las provenientes de los países de la OCDE tuvieron vertiginosos incrementos, destacando la UE (17,0%) y el resto de la OCDE (66,7%), con Estados Unidos a la cabeza (150,2%). Por el contrario, las originarias de países menos desarrollados evolucionaron a la baja (-3,8%).

9. taula / Cuadro nº 9

Atzerriarekin eginiko energiaz bestelako salerosketen jatorria eta helburua 2001eko bigarren hiruhilekoan

Origen/destino de los flujos no energ. con el extranjero del segundo trimestre de 2001

Neurria: milioi pezeta

Unidad: Millones de pesetas

	Esportazioak Exportaciones			Inportazioak Importaciones			Saldoa Saldo		
	2000	2001	Ald. % % var.	2000	2001	Ald. % % var.	2000	2001	
GUZTIRA	477.976	490.537	2,6	302.880	357.213	17,9	175.096	133.324	TOTAL
OCDE	404.443	407.293	0,7	243.259	299.841	23,3	161.183	107.452	OCDE
Europako Batasuna	313.060	338.016	8,0	212.586	248.693	17,0	100.474	89.323	Unión Europea:
Frantzia	86.136	106.852	24,1	53.859	57.051	5,9	32.277	49.801	Francia
Alemania	79.262	71.568	-9,7	46.180	50.906	10,2	33.082	20.662	Alemania
Erresuma Batua	29.443	37.669	27,9	35.727	36.997	3,6	-6.284	672	Reino Unido
Italia	36.997	40.723	10,1	28.615	45.405	58,7	8.382	-4.681	Italia
OCDEko besteak:	91.382	69.277	-24,2	30.674	51.148	66,7	60.709	18.129	Resto OCDE:
EEBB	27.939	29.141	4,3	8.903	22.272	150,2	19.036	6.869	EE.UU.
OCDEtik kanpokoak:	73.533	83.244	13,2	59.621	57.372	-3,8	13.913	25.872	No OCDE:
SESB zena eta eki.	4.319	4.550	5,3	10.268	13.522	31,7	-5.949	-8.972	Ex-URSS y Eur. E.
Amerika Latinoa	32.419	42.431	30,9	14.876	11.965	-19,6	17.543	30.467	América Latina
BIAH	4.225	3.999	-5,4	4.416	3.989	-9,7	-191	9	PARI
Munduko besteak	32.571	32.265	-0,9	30.061	27.897	-7,2	2.509	4.368	Resto del mundo

Neurria: milioi euro

Unidad: Millones de euros

	Esportazioak Exportaciones			Inportazioak Importaciones			Saldoa Saldo		
	2000	2001	Ald. % % var.	2000	2001	Ald. % % var.	2000	2001	
GUZTIRA	2.872,7	2.948,2	2,6	1.820,3	2.146,9	17,9	1.052,3	801,3	TOTAL
OCDE	2.430,8	2.447,9	0,7	1.462,0	1.802,1	23,3	968,7	645,8	OCDE
Europako Batasuna	1.881,5	2.031,5	8,0	1.277,7	1.494,7	17,0	603,9	536,8	Unión Europea:
Frantzia	517,7	642,2	24,1	323,7	342,9	5,9	194,0	299,3	Francia
Alemania	476,4	430,1	-9,7	277,5	306,0	10,2	198,8	124,2	Alemania
Erresuma Batua	177,0	226,4	27,9	214,7	222,4	3,6	-37,8	4,0	Reino Unido
Italia	222,4	244,8	10,1	172,0	272,9	58,7	50,4	-28,1	Italia
OCDEko besteak:	549,2	416,4	-24,2	184,4	307,4	66,7	364,9	109,0	Resto OCDE:
EEBB	167,9	175,1	4,3	53,5	133,9	150,2	114,4	41,3	EE.UU.
OCDEtik kanpokoak:	441,9	500,3	13,2	358,3	344,8	-3,8	83,6	155,5	No OCDE:
SESB zena eta eki.	26,0	27,3	5,3	61,7	81,3	31,7	-35,8	-53,9	Ex-URSS y Eur. E.
Amerika Latinoa	194,8	255,0	30,9	89,4	71,9	-19,6	105,4	183,1	América Latina
BIAH	25,4	24,0	-5,4	26,5	24,0	-9,7	-1,1	0,1	PARI
Munduko besteak	195,8	193,9	-0,9	180,7	167,7	-7,2	15,1	26,3	Resto del mundo

Iturria: Eustatek egina, Aduana eta Zerga Berezietarako Sailaren datuetan oinarrituta.
Fuente: Eustat según datos del Dpto. de Aduanas e Impuestos Especiales.

Aipatutako datuak ikusita eta Estatu Batuetako gertakari lazgarriek mundu osoan sortu duten ziurgabetasuna kontuan hartuta, etorkizunaren gaineko igurikapenak nabarmen okertu dira eta, azken batean, ekonomiaren eta munduko merkataritzaren hazkunde aurreikuspenak beherantz berrikusi dira. Hori guztia albiste txarra da EAEtik atzerrira bidaltzen diren esportazioen etorkizunerako, bereziki gogoratzen bada gertakari hori jazo baino lehen nazioarteko eskariak dagoeneko apaltzeko bidean zeudela.

Hasiera batean, oso zaila da zehaztea zer eragin izango duen EAEko esportazioetan. Alde batetik, Estatu Batuetako merkatuan saldutakoaren eragin zuzena dago (merkatu horrek EAEko energiak bestelako esportazio guztietatik %5,6 bereganatu zuen 2000. urtean), baina bestetik, eta hau askoz ere garrantzitsuagoa izango da, Europar Batasuneko herrialdeetan eta garapen bidean dauden eremuetan, bereziki Amerika Latinoan eta Asiako hegoekialdean, -Estatu Batuetako ekonomiarekin harreman estuak baitituzte-, eskariaren hazkunde izan dezakeen zeharkako eragina dago. Hori guztia kontuan hartuta, esan daiteke EAEtik atzerrira zuzendutako esportazioak %3aren inguruan haziko direla 2001. urtean.

A la vista de los datos comentados y que los dramáticos acontecimientos acaecidos en Estados Unidos se han traducido en un incremento global de la inestabilidad, se aprecia un consecuente empeoramiento de las expectativas y, en definitiva, menores previsiones de crecimiento para la economía y el comercio mundial. Todo ello constituye una mala noticia para el futuro de las exportaciones vascas al extranjero, que viene a sumarse a la fase de desaceleración en las demandas internacionales previa a esos hechos.

Aunque, a priori, resulta muy difícil cuantificar el impacto en las exportaciones vascas, no solamente por la incidencia directa de las ventas al mercado norteamericano (que en el año 2000 fueron el 5,6% del total de las exportaciones no energéticas vascas), sino por el efecto indirecto o cruzado, mucho más importante, de menores crecimientos de las demandas exteriores de los países de la UE y de las áreas en desarrollo, particularmente Latinoamérica y el sudeste asiático, dados los fuertes vínculos que presentan con la economía de Estados Unidos, puede estimarse que el aumento de las exportaciones vascas al extranjero se situará en el entorno del 3% para el conjunto de este año 2001.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK *PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

Era berean, Iparramerikako eta Europako ekonomien apaltzea 2001. urteko bigarren erdian amaitzen bada, EAEko esportazioak neurri batean suspertu daitezke 2002. urtean zehar, baina hazkunde erritmoak ez dira oso altuak izango.

Asimismo, si la desaceleración de las economías norteamericanas y europeas toca fondo en la segunda mitad de 2001, las exportaciones vascas podrían recuperarse a lo largo de 2002, aunque sobre ritmos moderados.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

LAN MERKATUA

MERCADO DE TRABAJO

2001. urteko lehen seihilekoan, EAEko lan merkatuaren portaera, biztanleria jardueraren arabera (BJA) inkestak emandako datuen arabera, guztiz positiboa izan zen aurreko seihilekoetan jasotako bilakaeraren aldean. Izan ere, 1999. urtearen hasieratik landunen kopuruak jaso zuen apaltzeko eta hazkunde txikietan egonkortzeko faseari susperraldi garrantzitsua jarraitu zaió 2001. urtearen aldi horretan. Era berean, langabeen kopurua gutxitzeko erritmoa areagotu zen, inkestaren historian inoiz ezagutu diren ehunekotan (%-22,0) kokatu delarik. Landunen eta langabeen kopuruek izan duten bilakaera positiboari seihilekoan zehar gauzatu den parte hartzaileen jaitsiera gehitu behar zaió. Aurrekoaren ondorioz, langabezi tasa 2001. urteko lehen seihilekoan %11,6an kokatu zen, 2000. urteko epe berean zegoen %14,4aren aldean. Beraz, 2,8 ehuneko puntu murriztu da langabezi tasa.

Hala eta guztiz ere, BJA inkestak erakutsi zuen irudi zalantzarik gabe positiboa ez zuten baieztatu EAEko lan merkatua aztertzeko erabiltzen ohi diren beste inkestek eta administrazioaren erregistroek. Hain zuzen ere, biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren (BAI) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko landunen bilakaerak portaera guztiz kontrajarria izan zuen 2001. urteko lehen seihilekoan, geldotasuna (%0,8) jasoz, 2000. urteko lehen seihilekoaren bizitasunaren aldean (%3,8). Hala ere, bi inkestak bat datoz langabezi tasak seihilekoan izan zuen bilakaera adierazteko uanean. Izan ere, BIAren arabera, langabezi tasa 2000ko lehen seihilekoko %12,5etik 2001eko lehen seihilekoko %11,6ra igaro da, BJA inkestaren ildotik, beraz. Beste aldetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak ere bere hazkunde erritmoak moteldu zituen 2001. urteko lehen seihilekoan eta %4,1 hazi zen 2000. urteko epe bereko %4,6aren aldean.

BJA inkestak 2001. urteko lehen seihilekoan argitaratu dituen datuetan, oso bestelako portaera ikusten da lehenengo hiruhilekoan eta bigarrenengan. Analisia 2001. urteko bigarren hiruhilekora mugatzen badugu, esan behar da, lehenengo eta behin, enplegua sortzeko erritmoa areagotu dela. Bizkortze hori garbiagoa da urte arteko tasetan (%3,5 bigarren hiruhilekoan eta %0,6 besterik ez lehenengoa) urteko tasa leunetan baino (%2,7 bigarren hiruhilekoan eta %1,4 lehenengoa) eta, neurri batean, emakume landunen suspertzearen ondorioz da, zenbait hiruhilekotan gutxitzen ibili ondoren. Lanik gabe dagoen biztanleriari dagokionez, ordea, ez dago horrenbeste alderik eta langabeen kopurua aurreko hiruhilabeteetan baino gehiago jaistera mugatu da. Hain zuzen ere, 2001. urteko bigarren hiruhilekoan jaitsiera %-22,7 izan zen tasa leunduan eta %-20,8 urte arteko tasan, urteko lehen hiruhilekoan %-21,3 eta %-19,2, hurrenez hurren, izan ziren bitartean. Azkenik, lan merkatuan parte hartzen duen biztanleria urteko bigarren hiruhilekoan bere horretan mantendu zen urte arteko tasan neurtuta (%0,1) eta zertxobait leundu zuen bere jaitsiera tasa leunduan (%-0,6). Gogoratu behar da aurreko lau hiruhilekoetan jaitsi egin zela aldagai horren tasa. Aurreko guztiaren ondorioz, langabezi tasa %11ra murriztu zen, 2001eko lehen hiruhilekoaren %12,2aren aldean.

Durante el primer semestre de 2001, el comportamiento del mercado de trabajo vasco, de acuerdo con la información proporcionada por la PRA, fue claramente positivo respecto de la evolución registrada en los semestres anteriores. En efecto, la fase de desaceleración y estancamiento en niveles bajos de crecimiento registrada por la ocupación a partir de comienzos de 1999, dio paso a un repunte importante en este período de 2001. Asimismo, la población parada continuó intensificando su ritmo de caída, situándose en porcentajes desconocidos (-22,0%) en la historia de esta encuesta. A estas evoluciones positivas de ocupados y parados se le debe sumar el descenso de la población activa acontecido durante el semestre, de tal modo que la tasa de paro del primer semestre de 2001 se situó en el 11,6% frente al 14,4% del mismo período de 2000, esto es, un descenso de 2,8 puntos porcentuales.

No obstante, esta imagen, claramente positiva, mostrada por la PRA no fue refrendada por otras encuestas y registros administrativos utilizadas habitualmente para el seguimiento del mercado de trabajo vasco. Así, la evolución de la ocupación en el País Vasco según la EPA dibujó un comportamiento totalmente opuesto al registrar en el primer semestre de 2001 un estancamiento de la ocupación (0,8%) frente al dinamismo del primer semestre de 2000 (3,8%). Sin embargo, donde sí se aprecia coincidencia entre ambas encuestas es en la evolución de la tasa de paro del semestre, ya que según la EPA, se redujo, en línea con la PRA, al pasar del 12,5% en el primer semestre de 2000 al 11,6% en el primer semestre de 2001. Por su parte, la afiliación a la Seguridad Social también flexionó sus ritmos de crecimiento en el primer semestre de 2001 al aumentar un 4,1% frente al 4,6% en igual período de 2000.

Los datos relativos al conjunto del primer semestre de 2001, según la PRA, adolecieron de un comportamiento muy diferente según el trimestre considerado. Centrando el análisis en el segundo trimestre de 2001, es preciso señalar, en primer lugar, la aceleración en el ritmo de creación de empleo, más visible en tasas interanuales (3,5% en el segundo trimestre frente al 0,6% en el primero) que en las tasas anuales suavizadas (2,7% en el segundo trimestre frente al 1,4% en el primero), debido, en parte, a la recuperación de la ocupación femenina después de varios trimestres de caídas. En el caso de la población parada, no obstante, la discrepancia se limitó a un incremento en el ritmo de desaceleración más fuerte que en los trimestres anteriores. Así, durante el segundo trimestre de 2001 el descenso fue del -22,7% en tasa suavizada y del -20,8% en tasa interanual frente al -21,3% y -19,2% respectivamente en el primer trimestre del año. Por último, la población activa registró, en el segundo trimestre del año, un estancamiento en tasa interanual (0,1%) y una ligera moderación en el descenso de la tasa suavizada (-0,6%), frente a las caídas de los anteriores cuatro trimestres. De este modo, la tasa de paro se redujo hasta el 11% frente al 12,2% del primer trimestre de 2001.

10. taula / Cuadro nº 10
Lan merkatuaren aldagai nagusiak
Principales variables del mercado de trabajo


	Lagun kopuruak Número de personas		Urteko tasa leundua Tasa anual suavizada				
	2000ko II II 2000	2001eko II II 2001	2000ko III III 2000	2000ko IV IV 2000	2001eko I I 2001	2001eko II II 2001	
Parte hartzaileak	950.386	951.262	-1,5	-2,1	-1,6	-0,6	Población activa
- Gizonak	569.196	568.799	-0,1	-0,2	-0,1	-0,2	- Hombres
- Emakumeak	381.189	382.462	-3,7	-5,1	-3,7	-1,2	- Mujeres
Landunak	818.664	846.937	0,7	0,5	1,4	2,7	Poblac. ocupada
- Gizonak	512.768	528.738	1,3	1,5	2,1	2,9	- Hombres
- Emakumeak	305.896	318.199	-0,2	-1,3	0,1	2,6	- Mujeres
- Lehen arloa	20.223	15.511	-0,1	-9,9	-18,8	-19,3	- Primario
- Industria	243.752	259.322	1,5	4,4	6,0	7,0	- Industria
- Eraikuntza	64.676	77.391	4,2	4,4	9,0	10,0	- Construcción
- Zerbitzuak	490.012	494.712	-0,1	-1,6	-1,3	-0,4	- Servicios
Langabeak	131.722	104.325	-15,4	-18,7	-21,3	-22,7	Poblac. parada
- Gizonak	56.428	40.061	-12,8	-16,4	-23,6	-29,4	- Hombres
- Emakumeak	75.293	64.263	-17,2	-20,3	-19,8	-17,4	- Mujeres
Langabezi tasa	%13,9	%11,0	----	----	----	----	Tasa de paro

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.
Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat.

BJA inkestaren datuak BAI inkestak eta Gizarte Segurantzako afiliazioak landunei buruz eskaini dituztenekin alderatzen baditugu, agerian dago aurreko hiruhilabeteetako aldea areagotu dela bigarren hiruhilekoan. Izan ere, BJAk bizkortzeko ibilbidea erakutsi du, baina BAI inkestak geldotasuna jaso du eta afiliazioak, azkenik, apaltzeko joera, landunen irudian ikus daitekeenez.

En comparación con los datos ofrecidos por la EPA y por la afiliación a la Seguridad Social sobre ocupación, los datos de la PRA del segundo trimestre incrementaron la divergencia de los trimestres anteriores, puesto que al perfil de aceleración de la PRA se opuso un perfil de estancamiento por parte de la EPA y otro de desaceleración por parte de la afiliación, tal y como puede apreciarse en el gráfico de la ocupación.

5. irudia / Gráfico nº 5 Landunen bilakaera Evolución de la ocupación



Iturria: *Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE eta Gizarte Segurantzaren datuetan oinarrituta.*

Fuente: *Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat, del INE y de la Seguridad Social.*

2001. urteko bigarren hiruhilekoan, landunek, BJAren arabera, erakutsi zuten bizitasuna gizonezkoen bilakaeran (%2,9) zein emakumezkoen bilakaeran (%2,6) oinarritu zen. Beraz, azken multzo honek nabarmen irauli zuen 2000. urte osoan jaso zuen beheranzko joera, 2001. urteko lehen hiruhilekoan nerabeki iradoki zuen bideari gogotsu helduz. Emakume landunen emaitza onak euren enplegu tasa %34,5era igotzea ahalbidetu du, lehen hiruhilabeteko %33,7aren aldean.

Urteko bigarren hiruhilekoko enplegua ekonomiaren arloen arabera aztertuta, aipagarria da industriak (%7,0) eta eraikuntzak (%10,0) izan duten hazkunde biziko portaera, urteko tasa leunduan neurtuta, aurreko hiruhilabeteetako joerari jarraipena emanez. Zerbitzuetan, ordea, joera aldaketa hauteman da, zeren arlo horretako landunen kopuruak jaisteko erritmoa gutxitu baitu, lehen hiruhilabeteko %-1,3tik bigarren hiruhilabeteko %-0,4ra.


Durante el segundo trimestre de 2001, el dinamismo mostrado por la ocupación, según la PRA, se asentó tanto en la evolución de la población masculina (2,9%) como de la femenina (2,6%), con lo que esta última invirtió de modo decidido el perfil de caídas registrado a lo largo de 2000 y que, tímidamente, apuntó ya en el primer trimestre de 2001. Este resultado favorable de la ocupación femenina permitió elevar la tasa de ocupación femenina hasta el 34,5% frente al 33,7% del primer trimestre.

En el análisis de la ocupación por sectores del segundo trimestre del año, es preciso señalar los perfiles de crecimiento acelerado en la industria (7,0%) y en la construcción (10,0%), ambos en tasa anual suavizada, prolongándose así las pautas de trimestres anteriores, mientras que en el sector de los servicios se perfila un cambio de tendencia al reducirse el ritmo de caída de sus ocupados que pasaron de un -1,3% en el primer trimestre de 2001 al -0,4% en el segundo trimestre.

Hiruhilabete bat gehiago, 16 urtetik gorako biztanleriak geldotasun erabatekoa erakutsi zuen. Parte hartzaileen kopuruak, berriz, hamarren bateko gehikuntza jaso zuen urte arteko tasan eta, horri esker, partaidetza tasa %53,2ra igo zen, hots, aurreko hiruhilekoan zegoena baino hiru hamarren gehiago. Partaidetza tasaren aurrerapen hori emakumeen bilakaerari esker lortu da (bost hamarreneko igoera izan baitute), gizonezkoen tasa bere horretan jarraitu zelako. Adin taldeen arabera, partaidetza tasak berriro egin zuen behera 16 eta 24 urte bitarteko multzoan (%41,3tik %39,6ra igaro da). Beste aldetik, bai 25 eta 44 urte bitarteko multzoan bai 44tik gorako taldean gorakadak jaso ziren. Hain zuzen ere, lehenengoek %85,5etik %86,1era igoarazi zuten euren tasa eta bigarrenek %31,7tik %32,2ra.

Un trimestre más, la población mayor de 16 años siguió mostrando un total estancamiento, mientras que la población activa registró un incremento de una décima en tasa interanual, de tal modo que la tasa de actividad global se elevó al 53,2%, esto es, tres décimas más que en el trimestre anterior. Este avance de la tasa de actividad global fue producto del registrado en la población femenina (aumento de cinco décimas porcentuales), por cuanto que la masculina se mantuvo estable. Por tramos de edad, se prolongó la caída de la tasa de actividad en el tramo de 16 a 24 años (del 41,3% al 39,6%), mientras que hubo avances en la relativa al grupo de 25 a 44 años (del 85,5% al 86,1%) y en la correspondiente a los de más de 44 años (del 31,7% al 32,2%).

6. irudia / Gráfico nº 6 Langabeen bilakaera Evolución de la población en paro



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat eta INEMen datuetan oinarrituta.
Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del Eustat y del INEM.

Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, BJA inkestak bigarren hiruhilabeterako eskaini dituen datu positiboenetatik bat, zalantzarik gabe, langabezi tasaren jaitsiera izan da (%12,2tik %11,0ra). Emaitza hori langabeen jaitsieraren ondorioa da, baina baita parte hartzaileen hazkunde txikiarena ere. Izan ere, aurreko hiruhilabete batzuetan langabezi tasa gutxitu egin zen landunen kopurua murriztu zen aldi berean. Sexuaren arabera, langabezi tasak 1,3 ehuneko puntu egin zuen behera bai gizonezkoen artean (%8,3tik %7,0ra) bai emakumezkoen artean (%18,1etik %16,8ra). Adinaren arabera, langabezi tasa talde guztietan murriztu zen, baina bereziki aipagarria izan zen 24 eta 44 urte bitarteko taldean.

BJA inkestak estimatutako lan merkatuaren bizitasuna ez dator bat sinatu diren kontratu berrien kopuruarekin. Hain zuzen ere, lehen sei hilekoan urte arteko hazkundea %2,9 besterik ez zen izan, 2000. urteko epe berean jasotako %8,6 baino askoz ere apalagoa baita. Hala ere, sei hilekoan kontratu mugagabeak (berriak gehi bihurtutakoak) %13,7 areagotu ziren eta emaitza hori bat dator soldatapekoen aldibaterakotasuneko tasaren bilakaerarekin. Inkestaren arabera, tasa hori %27,3ra murriztu zen, hots, 2000. urteko lehen sei hilekoan zegoena baino ia bi puntu eta erdi apalagoa da orain.

A diferencia de trimestres anteriores, uno de los datos más positivos ofrecidos por la PRA para el segundo trimestre fue, sin duda, el descenso de la tasa de paro (del 12,2% al 11,0%) como resultado de la disminución de la población parada y, a la vez, de un muy ligero avance de la población activa, ya que, en períodos anteriores, el descenso de la tasa de paro se hizo compatible con caídas de la ocupación. Por sexos, el descenso en puntos porcentuales de la tasa de paro fue de 1,3 puntos tanto para hombres (del 8,3% al 7,0%) como para mujeres (del 18,1% al 16,8%). Por edades, las tasas de paro de todos los tramos se vieron reducidas, siendo la de mayor intensidad la del tramo de 24 a 44 años.

El dinamismo del mercado de trabajo según la PRA no estuvo refrendado por la evolución de los nuevos contratos, ya que el aumento interanual del semestre fue del 2,9%, resultado claramente inferior al logrado en el mismo período de 2000 (8,6%). No obstante, durante el semestre, los contratos indefinidos (nuevos y convertidos) aumentaron un 13,7%, resultado que sí está en línea con la evolución de la tasa de temporalidad de la población asalariada que, según la PRA, se redujo hasta el 27,3% en ese período, es decir, casi dos puntos y medio menos que la señalada para el primer semestre de 2000.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK

PRECIOS, COSTES Y SALARIOS

1998. urtean, inflazioak eskariaren sendotasunari lotutako goranzko ibilbide bati ekin zion, 2000. urtean areagotu zena. 2000. urte horretan, prezioak izan ziren ekonomiaren atal negatiboena. Izan ere, lehengaien, bereziki energiakoen, prezioen igoerak, landu gabeko elikagaien garestitzeak, behiaren osasun arazoaren ondorioz, eta euroaren ahultasunak inflazioaren kontrola oztopatu zuten, Europako herrialdeetako agintariek inflazioaren aurkako politika sendoa ezarri zuten arren. 2001. urteko lehen seihilekoan, eta ekonomiaren ekoizpen erritmoa apaldu zen arren, prezioek goranzko bideari jarraitu zioten eta ekainean %4,4ko tasara iritsi, lehenago aipatu diren arazoak bata bestearen atzetik agertu ondoren. Hilabete horretatik aurrera, ordea, apaltzeko joerari ekin zioten eta %3,9ra murriztu da urte arteko tasa.

En 1998, la inflación comenzó una trayectoria ascendente conectada con el tirón de la demanda, que se intensificó en el ejercicio 2000. En el año 2000 los precios fueron la nota más negativa del balance económico, ya que las elevaciones de los precios de las materias primas, en especial de las energéticas, el encarecimiento de los alimentos no elaborados, como consecuencia de los problemas sanitarios en la carne de vacuno, y la trayectoria de debilidad del euro influyeron negativamente en su control, a pesar de la decidida política antiinflacionista de las autoridades de los países europeos. En el primer semestre del año 2001 y a pesar del menor ritmo productivo, los precios siguieron creciendo hasta alcanzar en el mes de junio una tasa del 4,4%, al encadenarse en el proceso de formación de precios la problemática antes citada. A partir de ese mes, comenzaron a moderarse lentamente hasta el 3,9%.

7. irudi / Gráfico nº 7
EAEko kontsumo prezioen indizea
Evolución del IPC del País Vasco



Iturria: *Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, INEren datuetan oinarrituta.*
Fuente: *Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del INE.*

Euskal Autonomia Erkidegoan, prezioak Estatuan baino zertxobait gehiago hazi ziren, bost hamarren gehiago hilabete horretan. Alde horrek ez du garrantzi ekonomikorik eta indizea egiteko metodologiaren ondorioa da. Hala ere, azpimarratu behar da Europako batez besteko KPI harmonizatutik urrun dagoela, hilabete berean %2,5ean baitzegoen, eta are gehiago %2a ez gainditzeko helburutik.

En el País Vasco, los precios tuvieron un comportamiento algo superior al del Estado, cinco décimas en dicho mes, circunstancia sin relevancia económica, ya que se debe a la metodología de elaboración del índice, sí bien si resulta destacable su lejanía con la media europea del IPC armonizado, que en el mismo mes era del 2,5%, y, aun más con el objetivo europeo de no superación del 2%.

Taldeka, azpimarratu behar da “elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak”, “hotelak, kafetegiak eta jatetxeak” eta “etxebizitza” taldeek izan duten prezio igoera. Aitzitik, “garraioa” eta “aisia eta kultura” taldeetan salneurriak gutxiago hazi dira.

Por apartados, destaca la aceleración de los precios en “alimentos y bebidas no alcohólicas”, “hoteles, cafés y restaurantes” y “vivienda”, frente a los menores precios habidos en “transporte” y en “ocio y cultura”.

11. taula / Cuadro nº 11 EAEko kontsumo prezioen indizea IPC del País Vasco

Urte arteko aldakuntza tasak

Tasas de variación interanual

	1999ko abendua diciembre 1999	2000ko abendua diciembre 2000	2001eko ekaina junio 2001	2001eko iraila septiembre 2001	
Indize orokorra	3,0	3,8	4,4	3,9	Índice general
- Jan. eta alko. gabeko eda.	1,5	3,0	6,0	6,1	- Aliment. y bebidas no alco.
- Edari alkohol. eta tabakoa	9,0	4,0	2,9	2,6	- Bebidas alcoholó. y tabaco
- Jantziak eta oinetakoak	2,0	2,6	2,7	2,9	- Vestido y calzado
- Etxebizitza	1,7	2,4	4,7	5,0	- Vivienda
- Etxeko hornidura	2,5	4,1	4,5	4,2	- Menaje
- Medikuntza	0,5	3,3	1,8	1,4	- Medicina
- Garraioa	5,2	5,9	2,4	0,2	- Transporte
- Komunikazioak	-3,2	-3,0	-0,1	-0,8	- Comunicaciones
- Aisia eta kultura	1,2	5,1	5,0	2,2	- Ocio y cultura
- Irakaskuntza	4,9	6,4	5,1	2,9	- Enseñanza
- Hotelak, kafet. eta jatetxe.	5,2	4,0	4,9	5,8	- Hoteles, cafés y restaura.
- Besteak	5,2	4,6	5,7	5,4	- Otros

Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea.

Fuente: Instituto Nacional de Estadística

Industri prezioek, berriz, 2000. urteko urrian apaltzeko ibilbide sendoari ekin zioten, lehengai energetikoen salneurria jaisten hasi zenean. Industri prezioen indizea ondasunen ekonomi helburuaren arabera aztertzen bada, agerian dago kontsumorako ondasunak ekaina eta abuztua bitartean %4,6aren inguruan egonkortu zirela eta ekipamendurako ondasunek urte osoan zehar izan zuten joerari eutsi ziotela, %1aren inguruko tasetan mantenduz. Bitarteko ondasunek, azkenik, etengabe apaldu zituzten euren ekoizpen prezioak, energia ekoizkinek egin zuten heinean, azken hauek abuztuan %-0,8ko tasara iritsi baitziren.

Por su parte, los precios industriales iniciaron en el mes de octubre de 2000 una marcada trayectoria de desaceleración, una vez que el precio de los inputs energéticos comenzó a descender. Analizando el IPRI según el destino económico de los bienes, se observa que los bienes de consumo se estabilizaron entre los meses de junio-agosto en la tasa del 4,6%, mientras que los bienes de equipo siguieron la tónica que les ha venido caracterizando todo el año, manteniéndose en tasas en torno al 1%. Los bienes intermedios presentaron una constante desaceleración de sus precios de producción, en línea con los productos energéticos, que en el mes de agosto llegaron a una tasa del -0,8%.

12. taula / Cuadro nº 12 EAEko industri prezioen indizea IPRI del País Vasco

Urte arteko aldakuntza tasas

Tasas de variación interanual


	1990ko abendua diciembre 1999	2000ko abendua diciembre 2000	2001eko ekaina junio 2001	2001eko abuztua agosto 2001	
Indize orokorra	5,0	4,1	1,2	0,9	Índice general
- Kontsumo ondasunak	1,4	3,5	4,6	4,6	- B. de consumo
- Ekipo ondasunak	3,5	0,7	0,9	0,8	- B. de equipo
- Bitarteko ondasunak	7,4	5,0	-0,1	-0,8	- B. Intermedios

Iturria: Eustat.
Fuente: Eustat.

Kostuen bilakaerari dagokionez, INEk soldaten gaineko inkesta zaharra datu gehiagorekin hornitu du eta 2001eko ekainetik lan kostuen indize bat argitaratzen du. Indize horrek soldata kostuak ez ezik, enpresek lan eskua erabiltzeagatik dituzten gainontzeko kostuak ere, hau da Gizarte Segurantzari nahi eta nahi ez ordaindu behar zaizkion gizarte kotizazioak eta enpresen gainontzeko kostuak, barne hartzen ditu.

En cuanto al conocimiento de los costes, el INE ha ampliado la antigua encuesta de salarios y, a partir del junio de 2001, comenzó a publicar un índice de costes laborales, que además de los costes salariales incluye los demás costes en que incurren las empresas por la utilización del factor trabajo, es decir, las cotizaciones sociales obligatorias a la Seguridad Social y el resto de los costes realizados por el empleador.

8. irudi / Gráfico nº 8 Industri prezioen indizearen bilakaera Evolución del IPRI



*Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.
Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos de Eustat.*

Bi estatistika horiek lotu gabe daudenez, oraingoz esan daitekeen gauza bakarra hau da: urteko bigarren hiruhilekoan, batez besteko lan kostua langile eta hilabete bakoitzeko %3,4 hazi zen aurreko urtearen aldean, lehen hiruhilekoan %4,2 izan zen bitartean. Jaitsiera hori gainontzeko kostuak delako osagaiari esker lortu zen, %8,4ko igoeratik %6ra gutxitu baitzen. Soldata indizeek, ordea, %2,8tik %3,5era areagotu ziren.

Horrek agerian uzten du sinatutako soldata igoeren gorakada. 2001. urteko negoziazio kolektiboaren analisiak %4,3ko soldata igoera eskaini du uztaila bitartean. Hala ere, urtean zehar soldata eskaerak ez dira asko aldatu eta aurreko urteetan sinatutako lan hitzarmenei esker soldata igoerak %4,3 horren inguruan egonkortu dira. Horrek esan nahi du soldatek EAEko kontsumo prezioen indizeak baino zertxobait gehiago hazi direla.

Al no haber procedido al enlace de ambas estadísticas, por el momento, solo se puede decir que, en el segundo trimestre del año, el coste laboral medio por trabajador y mes obtuvo un crecimiento del 3,4% con respecto al año anterior, frente al 4,2% del primer trimestre. Esta moderación se debió al componente de otros costes, que pasó de un aumento del 8,4% al 6%, puesto que los índices salariales registraron una ampliación del 2,8% al 3,5%.

Este hecho muestra el repunte de los incrementos salariales firmados. El estudio de la negociación colectiva realizada a lo largo de 2001 arroja una cifra de incremento salarial en el 4,3% al mes de julio. Si bien a lo largo del año las reivindicaciones salariales se han mantenido en el conjunto del año y gracias a los convenios firmados en años anteriores las subidas salariales se han estabilizado en torno a ese 4,3%. Esto significa una subida ligeramente superior a la del IPC de la CAPV.

13. taula / Cuadro nº 13
Lan hitzarmenetan adostutako soldata igoera
Incremento salarial pactado en convenio

	1997	1998	1999	2000	2001	
Indarrean dauden hitzarmenak:	3,3	2,4	2,5	3,9	4,3	Convenios en vigor:
- Urtean zehar izenpetuak	3,3	2,6	2,4	4,0	4,2	- Firmados durante el año
Negoziazio esparruaren arabera:						Por ámbito de negociación:
- Sektoreko hitzarmenak	3,4	2,4	2,4	3,8	4,4	- Convenios sectoriales
- Enpresako hitzarmenak	3,0	2,4	2,6	3,9	---	- Convenios de empresa

* 2001eko uztaila arte izenpetutako lan hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

*Convenios registrados hasta el mes de julio del 2001.
Fuente: Consejo de Relaciones Laborales

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

2001-2005 ALDIKO BILAKAERA MAKROEKONOMIKOAREN NONDIK NORAKOAK

EL ESCENARIO MACROECONÓMICO PARA EL PERIODO 2001-2005

Nazioarteko aurreikuspenen ezaugarriak

Estatu Batuetan jazo berri diren gertakari lazgarriek munduko ekonomiaren etorkizunari buruzko ziurgabetasuna izugarri areagotu dute. Albiste txar horrek berehala okerragotu ditu mundu osoko eragile ekonomikoen igurikapenak, gaur egungo ekonomiak elkarri oso lotuta daudelako.

Hasiera batean, eta hondamendi mota guztiak alde batera utzita, ezin da zalantzan jarri familiek egingo luketen kontsumoa eta enpresek bideratuko luketen inbertsioa izango direla kaltetuenak. Hori dela eta, munduko ekonomiak etorkizunean izango duen bilakaera gertakari horiek baino lehen aurreikusi zena baino txarragoa izango da. Era berean, munduko merkataritzak, azken hamarkadan aberastasun iturria izan baita, kalte nabarmenak pairatuko ditu.

Egia esanda, zauriaren gainean pikoa bezalakoa da, zeren irailaren 11ren aurreko egoera ekonomikoak Estatu Batuetako ekonomiaren ahultasuna agerian utzia baitzuen eta, hori gutxi ez balitz, Japoniako ekonomia geldo zebilen eta Europar Batasunean apaltzeko joera garbia ezaguna zen.

Egoera horren aurrean, Estatu Batuetako moneta agintariak merkatu monetarioak malgutzeko politika oldarkorra ezarri zuten, interes tasak behin eta berriro jaitzaraziz. Bide beretik, baina zuhurrago jokatuz, joan ziren Europako Banku Zentralaren erabakiak. Neurri horiek ekonomia nagusiak bata bestearen atzetik atzeraldian sartzeari saihestu nahi zuten.

Gertakari berri horien ostean, banku zentral nagusiek eman duten erantzun koordinatuaren helburu bakarra munduko finantza sistemaren likidezia areagotzea izan da. Halaber, Estatu Batuetako administrazioak aparteko neurriak iragarri ditu aurrekontuetan, suntsitutako guztiari aurre egiteko eta aire konpainiek nozitu dituzten kalteak leuntzeko. Sistemaren likidezia handitzeko beharra, bereziki, interes tasen jaitzieraren bidez lortu nahi izan da. Hori horrela izanda, Estatu Batuetako Erreserba Federalak %2,5era murriztu ditu bertako interes tasak eta Europako Banku Zentralak, inflazioaren gaineko aurreikuspenak hobetu direla egiaztatu ostean, %3,75era jaitsi ditu finantza eragiketa nagusien interes tasak.

Escenario de perspectivas internacionales

Los recientes acontecimientos dramáticos registrados en Estados Unidos han generado un incremento exponencial de la inestabilidad sobre el futuro económico mundial. Esta mala noticia se ha traducido inmediatamente en un empeoramiento sustancial de las expectativas de los agentes económicos en todo el mundo, dado el elevado grado de interconexión que caracteriza la realidad económica actual.

A priori, y obviando todo tipo de catastrofismos, parece fuera de toda duda que las decisiones sobre consumo por parte de las familias y sobre inversión por parte de las empresas serán las principales afectadas de modo negativo, con lo que la evolución futura de la economía mundial se tornará peor de lo previsto con anterioridad a esos acontecimientos. Asimismo, el comercio mundial, fuente de riqueza de la última década, también se verá resentido de modo importante.

En realidad, llueve sobre mojado debido a que la situación económica que se dibujaba con antelación al 11 de septiembre ya apuntaba a una situación de debilidad por parte de la economía estadounidense, a la que se unía el parón en que se encontraba la economía japonesa y la fuerte desaceleración existente en la Unión Europea.

Ante esta situación, las autoridades monetarias norteamericanas iniciaron una agresiva política de flexibilización de las condiciones monetarias con sucesivas rebajas de tipos de interés, que fue seguida, con mayor cautela, por el Banco Central Europeo. Medidas encaminadas a evitar que las principales economías entraran en un círculo de depresión encadenada.

Tras los hechos recientes, la respuesta económica coordinada entre los bancos centrales más importantes ha ido por la única dirección correcta de aumentar la liquidez del sistema financiero mundial, así como el anuncio de las medidas presupuestarias extraordinarias de corte expansivo por parte de la administración norteamericana para compensar lo destruido y los perjuicios de las compañías aéreas. La necesidad de aumento de liquidez del sistema se ha traducido, básicamente, en una rebaja de los tipos de interés de la Reserva Federal norteamericana hasta situarlos en el 2,5% y, en el caso del Banco Central Europeo, tras constatar la mejora de las perspectivas inflacionistas, en un descenso hasta el 3,75% del tipo de interés de sus principales operaciones de financiación.

Nazioartean nahiko adostasun handia dago, zoritxarrez, beste kontu baten gainean: ekonomia errealearen bilakaerari buruz gaur egun aurreikuspenak egitea oso zaila da. Dena dela, ia aho batez, bai erakunde ofizialek (governuek eta nazioarteko erakundeek) bai pribatuek hazkunde aurreikuspenak beharantz zuzendu dituzte, hala 2001. urterako nola hurrengo urterako. Berrikuste horien oinarrian, alde batetik, irailaren 11 baino lehen dagoeneko hauteman zen munduko jardueraren ahultasuna dago eta, beste aldetik, nazioarteko politikan sortu den egongaitzasun negatiboa sumatzen da.

Aipatutako berrikuste horien adibide adierazgarri gisa, FMIk (Nazioarteko Moneta Funtsa) irailaren amaieran aurreikutzu berri duen nazioarteko aurreikuspenak aurrekoetan iragarritako tasak gutxitu ditu, nahiz eta egin hilabetearen 11n baino lehenago egin zuten. Hain zuzen ere, munduko hazkundea aurten %2,6an kokatuko zen eta 2002. urtean, berriz, %3,5ean. Beraz, aurreikuspenak sei eta lau hamarren txikiagoak dira, hurrenez hurren, baina susperraldia datorren urtean hasiko zelako iritziari eutsi dio.

Munduko merkataritzaren portaeran, aurreko txosteneko aurreikuspenei eginiko berrikusteak garrantzitsuagoak izan dira lehen urtean (-2,7 ehuneko puntu) 2002. urtean baino (-0,8 ehuneko puntu), nahiz eta, ekoizpenarekin gertatu den bezala, 2002. urterako hazkunde erritmo handiagoa iragartzen den.

Neurrizko aldakuntza horiek nabarmenagoak dira herrialdeka aztertuta. Izan ere, garapen bidean dauden herrialdeek hazkunde handiagoa lortuko dute (%4,3 2001. urtean eta %5,3 2002. urtean) eta ekonomia aurreratuenek gehikuntza txikiak izango dituzte (%1,3 2001ean eta %2,1 2002an). Europar Batasunaren eremuan, azpimarratzekoa da Espainiako ekonomia, %2,7ko hazkundea 2001ean eta %2,8koa 2002an aurreikusi baitira. Gogoratu behar da 2000. urtea bai Estatu Batuentzat bai Europar Batasunarentzat azken hamarkadako hazkunde handieneko urtea izan zela.

Hala ere, FMI erakundeak oraindik uste du garatutako ekonomiek (bereziki Estatu Batuek eta Europar Batasunak) aurtengo amaieran edo 2002. urteko hasieran hondoa joko dutela eta data horretatik aurrera susperraldia mamituko dela. Era berean, jarduera erritmo txikiagoko irudi horrekin batera, eta datu positibo gisa, inflazioaren portaera hobea aurreikusi dute, batez ere garatutako ekonomietan.

Otra cuestión sobre la que, desgraciadamente, parece existir consenso internacional es la enorme dificultad existente a la hora de efectuar previsiones sobre la evolución de la economía real. En cualquier caso, de manera casi unánime, tanto los organismos oficiales (gobiernos y entidades internacionales) como privados han procedido a rebajar sus estimaciones de crecimiento tanto para el conjunto de 2001 como para el año posterior, apoyándose, por un lado, en el deterioro de la actividad mundial que ya se constataba con antelación al 11 de septiembre y, por otro lado, en el plus negativo de la inestabilidad política internacional.

Como ejemplo muy significativo de dichas revisiones, el reciente escenario internacional presentado por el FMI a finales de septiembre incorpora variaciones a la baja sobre las anteriores previsiones, a pesar de haberse elaborado con anterioridad al día 11. Así, el producto mundial se situaría en este año en el 2,6% frente al 3,5% de 2002, habiéndose reducido las previsiones en seis y cuatro décimas respectivamente, pero manteniéndose las expectativas de reactivación para el año que viene.

En el comportamiento del comercio mundial, los recortes en las previsiones del anterior informe son más significativos para el primer año (-2,7 puntos porcentuales) que para 2002 (-0,8 puntos porcentuales), aunque se mantiene, al igual que en la producción, una perspectiva de mayor ritmo de avance para 2002 que para 2001.

Estas modificaciones moderadas se amplifican por países. Se puede señalar que serán los países en desarrollo los que más crecerán (4,3% en 2001 y 5,3% en 2002), mientras que las economías avanzadas lo harán de un modo muy modesto (1,3% en 2001 y 2,1% en 2002), destacando dentro del área de la UE el caso de España, donde se prevé un 2,7% en 2001 y un 2,8% en 2002. Todo ello, tras un año 2000 que fue, tanto para EEUU como para el conjunto de la Unión Europea, el ejercicio de mayor crecimiento a lo largo de la última década.

El FMI, no obstante, mantiene de las previsiones anteriores que las economías desarrolladas (principalmente EE.UU. y la Unión Europea) toquen fondo hacia finales de año o comienzos de 2002 para, a partir de entonces, iniciar la reactivación. Asimismo, este panorama de menores ritmos de actividad se complementa, como dato positivo, por un mejor comportamiento de la inflación, sobre todo en las economías desarrolladas.

14. taula / Cuadro nº 14
FMIren ekonomi aurreikuspenak
Previsiones económicas del FMI

	1999	2000	2001	2002	Udaberriko txostenarekiko aldea Diferencias sobre Informe primavera		
					2001	2002	
Hazkundera							Crecimiento
Mundua	3,6	4,7	2,6	3,5	-0,6	-0,4	Mundial
Ekonomia aurreratuak	3,4	3,8	1,3	2,1	-0,6	-0,6	Economías avanzadas
EEBB	4,1	4,1	1,3	2,2	-0,2	-0,3	EE.UU.
Japonia	0,8	1,5	-0,5	0,2	-1,1	-1,3	Japón
Alemania	1,8	3,0	0,8	1,8	-1,1	-0,8	Alemania
Frantzia	3,0	3,4	2,0	2,1	-0,6	-0,5	Francia
Erresuma Batua	2,3	3,1	2,0	2,4	-0,6	-0,4	Reino Unido
Europar Batasuna	2,7	3,4	1,8	2,2	-0,6	-0,6	Unión Europea
Industrializatu berri diren Asiako herriak	7,9	8,2	1,0	4,3	-2,8	-1,2	Países asiáticos de nueva industrialización
Garapen bideko herriak	3,9	5,8	4,3	5,3	-0,7	-0,3	Países en desarrollo
Munduko merkataritza	5,3	12,4	4,0	5,7	-2,7	-0,8	Comercio Mundial
Petrolio gordina dolarretan	37,5	56,9	-5,0	-8,6	4,6	3,2	Precios crudo en dólares
Inflazioa herri garatuetan	1,4	2,3	2,4	1,7	0,3	-0,1	Inflación p. desarrollados
Inflazioa garatze bideko h.	6,8	6,0	5,9	5,1	0,2	0,3	Inflación p. en desarrollo

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Nazioarteko Moneta Funtsaren datuetan oinarrituta
Fuente: Elaboración de la Dirección de Economía y Planificación según datos del FMI.

Aipatutako testuinguruak EAEko ekonomian izango dituen ondorioak

Aurreko atal batean dagoeneko azaldu da EAEko ekonomiak, neurri handi batean, kanpo salmenta gero eta herrialde gehiagotara bideratzean oinarritu duela bere hazkunde tasa altuak. Atzerriko merkatuetara zabalduz, merkatu horietan sakonduz eta merkatuak berak dibertsifikatuz, ekoizkinen lehiakortasun irabazietan oinarrituta, EAEko ekonomia irekiagoa egin da eta, beraz, testuinguruaren menpekoagoa ere bai, testuinguru horretan eraginik izateko ahalmen urria badu ere.

Beste era batean adierazita, kanpo merkatuen portaerak eragin handiagoa du orain EAEko ekonomian eta horrek alde onak eta txarrak ditu. Izan ere, mundu mailan bat-bateko okerragotzea gertatu izana oso albiste txarra da EAEko ekonomiarentzat, batez ere jarduera apaltzen ari den une batean, orain gertatu den bezala. Eta txarra da bi arrazoi-rengatik: alde batetik, Estatu Batuetako merkatuko salmentetan duen zuzeneko eraginarengatik –gogoratu 2000. urtean EAEko energiaren bestelako esportazio guztietatik %5,6 herrialde horretara joan zirela- eta beste aldetik, eta hau askoz ere garrantzitsuagoa da, Europar Batasuneko herrialdeetan eta garapen bidean dauden eremuetan -bereziki Amerika Latinoan eta Asiako hegoekialdean, Estatu Batuetako ekonomiarekin harreman estuak baitituzte-, eskarien hazkundearen izan dezakeen zeharkako eraginarengatik.

Kateatze efektu hori ebaluatzea oso zaila da, oraindik ez dakigulako zein izango den garatutako ekonomietan izan dezakeen eragina eta, ondoren, nola baldintzatuko duen EAEko ekonomiaren etorkizuneko bilakaera. Hala eta guztiz ere, esan daiteke nazioarteko okerragotzeak epe ertainean (2001-2002) ondorio negatiboak, baina ez oso handiak, izango dituela EAEko ekonomian eta, beraz, BPGren eta enpleguaren hazkundeak hasieran aurreikusitakoak baino txikiagoak izango dira.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiarentzat egin diren aurreikuspenak osatzeko honako hipotesi hauek hartu dira kanpo ingurunearen bilakaeran:

- Nazioarteko hazkundera gehiago apalduko da 2001. urtean eta 2002an suspertuko bada ere, hasieran aurreikusitakoa baino gutxiago haziko da. Halaber, Espainiako hazkundera Europako batez bestearen gainetik egongo da eta munduko ekonomiaren antzekoa izango da.
- Euroak dolarraren aldean azken aldietan izan duen balio galeraren ondoren, etorkizunean Europako txanponak gero eta balio gehiago izango duela espero da, Europako ekonomia indartzen den heinean.

Efectos sobre la economía vasca derivados del contexto señalado.

Ya se ha expuesto en un apartado específico, que la economía vasca ha sustentado sus altos niveles de crecimiento, en buena medida, a partir de un proceso de internacionalización creciente de sus flujos exteriores. La apertura, profundización y diversificación hacia mercados foráneos, apoyándose en las ganancias de competitividad de sus productos, ha configurado una economía vasca más abierta al exterior y, por lo tanto, dependiente, a su vez, de un contexto sobre el cual tiene escasa capacidad de influir.

En otras palabras, la economía vasca se ha hecho más vulnerable al comportamiento de los mercados exteriores, hecho que tiene una vertiente positiva y otra negativa. Así, un drástico empeoramiento del contexto mundial es una mala noticia para la economía vasca, sobre todo en estos momentos de desaceleración de la actividad, por la incidencia directa de las ventas al mercado norteamericano - que en el año 2000 fueron el 5,6% del total de las exportaciones no energéticas vascas- y por el efecto indirecto o cruzado, mucho más importante, de menores crecimientos de las demandas exteriores de los países de la UE y de las áreas en desarrollo, particularmente Latinoamérica y el sudeste Asiático, con fuertes vínculos con la economía de Estados Unidos.

Este efecto de encadenamiento es de muy difícil valoración, toda vez que aún es pronto para calibrar la repercusión sobre las economías desarrolladas que, a su vez, perfilan con su comportamiento la evolución futura de la economía vasca. No obstante, puede estimarse que el empeoramiento internacional terminará afectando de modo negativo pero moderado a la economía vasca en el medio plazo (2001-2002), registrándose, en consecuencia, menores crecimientos del PIB y del empleo vascos de los anteriormente previstos.

En resumen, las hipótesis de evolución del entorno exterior que han servido para elaborar los escenarios de perspectivas para la economía del País Vasco son:

- Mayor desaceleración del crecimiento internacional para el año 2001, con repunte en el 2002, aunque de menor intensidad a lo inicialmente previsto. Asimismo, manteniendo una evolución similar al conjunto mundial, el crecimiento español se situará por encima de la media europea.
- Ante la fuerte depreciación sufrida en el pasado reciente por el euro frente al dólar, y a medida que se fortalezca la economía europea, se espera una progresiva apreciación de la moneda europea.

- Euroaren eremuan inflazioaren alorrean dauden igurikapen hobeak ikusita, litekeena da interes tasen joerak beherantz egitea.
- Dadas las mejores expectativas inflacionistas de la zona euro, sería posible apreciar una tendencia a la rebaja de los tipos de interés.
- Langabezi tasaren jaitsiera jarraituko da, baina oso erritmo apalean eta, beraz, ekonomiaren egiturazko arazo nagusietatik bat izaten segituko da.
- Se continuará con el descenso paulatino, aunque muy reducido, de la tasa de paro, y, por lo tanto, seguirá siendo uno de los principales problemas estructurales de la economía.

EAEko ekonomiaren aurreikuspenak: 2001-2005 aldia

Lehenago aipatu den nazioarteko testuinguruarekin eta aurreratu diren aurreikuspenekin bat eginez, EAEko barne produktu gordinaren hazkundea %3,2an kokatuko da 2001. urtean. Epe ertainean, EAEko ekonomia %3aren inguruan haziko da, beraz Espainiako ekonomiaren eta Europako aurreikuspenen gainetik kokatuko da.

2001. urterako, aurreko urtean eskariak izan zuen egituraren aldaketa bat espero da. Barne eskariak bere hazkunde erritmoa gutxituko du eta kanpo eskariak ez dio inolako ekarpenik egingo hazkundeari, bereziki nazioarteko merkataritza nabarmen motelduko delako, batez ere esportazioen alorrean eta ez horrenbeste inportazioetan.

Familiek azken kontsumoan gastatzen dutena %2,4aren inguruan kokatuko da, PFEZren erreformaren eraginak urte artean berdindu direlako eta lanpostuak sortzeko erritmoa gutxitu delako. Aldi berean, kontsumo publikoa %2 haziko da, erakundeek onartu duten zuhur gastatzeko politikaren ondorioz.

Kapital finkoaren eraketa gordina %5,6 gehituko dela aurreikusi da eta eskariaren osagai dinamikoena izaten jarraituko da. Hala ere, 2000. urtekoa baino gutxiago haziko da, neurri batean kontsumitzaileen eta enpresen igurikapenak okertu direlako, nahiz eta interes tasen jaitsierak bere onurak 2002. urtean nabaritu diren.

Ekonomiak oro har izango duen apaltzea bera osatzen duten arlo ekonomiko nagusietara igaroko da eta industriak hautemango ditu kalte handienak, zerbitzuek eragin txikiagoa nabaritu duen bitartean. Aitzitik, eraikuntza izango da ekonomiaren arlo biziena.

El escenario macroeconómico de la CAPV: 2001-2005

De acuerdo con el contexto internacional antes reseñado y con las perspectivas adelantadas para él, el crecimiento del PIB del País Vasco estimado para el año 2001 se situará en el 3,2%. En el medio plazo, la economía vasca crecerá en torno al 3%, resultado superior a lo aguardado para la economía española y a las previsiones europeas.

Para el 2001, se espera una modificación de la estructura de la demanda registrada en el año anterior, con un menor ritmo de crecimiento de la demanda interna y una aportación nula del sector exterior, debido a la fuerte desaceleración del comercio internacional, sobre todo en el aspecto exportador y no tanto en el importador.

El gasto en consumo final de los hogares se situará en torno al 2,4%, dado que ya se han internalizado los efectos de la reforma del IRPF y se ha ralentizado la tasa de creación de empleo. A la vez, el consumo público crecerá un 2%, de acuerdo a la política de contención adoptada por las instituciones.

La formación bruta de capital fijo, con un aumento previsto del 5,6%, va a seguir siendo el componente más dinámico de la demanda, a pesar de la desaceleración que experimentará respecto al 2000 debido, en parte, al deterioro de las expectativas de consumidores y empresas, y pese a las rebajas de tipos de interés, que tendrán su impacto en el 2002.

La desaceleración del conjunto de la economía se trasladará a los principales sectores económicos, siendo el más afectado el sector industrial y, en menor medida, los servicios. Por el contrario, la construcción aparecerá como el sector más dinámico.

Epe ertainera (2002-2005) aurreikusi den bilakaeran, aldaketa garrantzitsuak aurreratu dira 2001. urtearen aldean, zeren nazioartean espero den susperraldiak kanpo arloari emango baitio protagonismoa BPGri eginiko ekarpenari dagokionez. EAEko ekonomiaren batez besteko hazkundea aldi horretan %3,0an kokatuko da. Eskaintzaren aldetik, ekoizteko arlo guztiek, 2001. urteko emaitzen aldean, erritmo egonkorrak erakutsiko dutela espero da, eta zerbitzuen tasa urtealdiaren amaieran bizkortuko.

En el escenario previsto a medio plazo (2002-2005) se prevén modificaciones importantes respecto a 2001, puesto que la esperada reactivación internacional devolverá protagonismo al saldo exterior en cuanto a aportación al PIB, situándose el crecimiento medio de la economía vasca durante dicho período en un 3,0%. Por el lado de la oferta, se espera una estabilización de los ritmos de avance de todos los sectores productivos con relación a los resultados del 2001, con un repunte de los servicios al final del período.

15. taula / Cuadro nº 15

EAEko ekonomiarentzat aurreikusi den bilakaera 2001-2005 aldian
Escenario macroeconómico previsto para la CAPV en el periodo 2001-2005

Aldakuntza errealeko tasak

Tasas de variación real

	2000(a)	2001	2002	2003	2004	2005	
ESKARIA							DEMANDA
Kontsumo pribatua	3,1	2,4	2,1	1,7	1,8	1,8	Consumo privado
Kontsumo publikoa	0,2	2,0	1,8	1,5	1,8	2,0	Consumo público
Inbertsioa (KEG)	10,3	5,6	4,8	4,1	2,9	2,5	Inversión (FBC)
Barne eskaria	4,7	3,2	2,7	2,3	2,1	2,0	Demanda Interna
<i>Kanpo saldoaren ekarpena</i>	0,6	0,0	0,2	0,6	0,9	0,8	<i>Aportación Saldo Exterior</i>
ESKAINNTZA							OFERTA
Industria	7,2	3,0	3,8	3,7	3,6	3,2	Industria
Eraikuntza	7,4	7,5	2,7	2,2	2,6	1,4	Construcción
Zerbitzuak	3,8	2,8	2,7	2,7	2,9	3,0	Servicios
BPG merkatu prezioetan	5,3	3,2	3,0	2,9	3,0	2,8	PIBpm
BPGren deflatoarea	2,9	3,5	3,0	2,9	2,8	2,7	Deflactor PIB
Enplegua (%)	3,8	1,8	1,3	1,3	1,4	1,3	Empleo (%)
Langabezi tasa	13,7	11,0	10,4	9,7	8,8	8,0	Tasa de paro

Oharra: 2000. urteko datuak Eustaten aurrerapena dira. 2001etik 2005erakoak, berriz, ISERE ereduan oinarrituta daude.

Nota: Los datos del año 2000 son el avance de Eustat. Para el período 2001-2005 las estimaciones se basan en el modelo ISERE.

2002

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK *PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

Hazkunde neurrizko eta iraunkor hau lagungarria izango da enplegua sortzeko. Langabezi tasa %11n kokatuko da 2001. urtean eta aldiaren amaieran %8ra murriztuko da.

Este crecimiento moderado y sostenido favorecerá la creación de empleo, alcanzando la tasa de paro el 11% en el 2001 y situándose al final del período en el 8% de la población activa.

Azkenik, inflazioaren alorrean, BPGren deflatorearen hazkunde tasa, 2001. urteko gorakadaren ostean, jaitsi egingo dela aurreikusi da, Europako Banku Zentralaren moneta politikak bilatzen duen tamainara urratsez urrats itzuliz.

Por último, respecto a la inflación, se prevé un descenso de la tasa de crecimiento del deflactor del PIB tras el repunte del 2001, volviendo lentamente a la senda que persigue la política monetaria del Banco Central Europeo.

